Era berean, Zelatan 365 ekimena azpimarratu gura neuke, azken urtean lankidetzatresna digitalen bidez kultura eraldatzeko proiektu lez gauzatu dana. Proiektuaren helburua lan egiteko modu tradizionala eraldatzea da eta lan digitalaren kultura barria lortu, personei ohitura eta jokabide digital barriak emonez.

Trebakuntza-fase bat egin da webinar eta tailerren bidez, eta 2020an 900 personak egin dabez. Nire ustez, Aldundiak bere langileak prestau eta trebatzearen alde egin dauen apustua agirian gelditu da adibide horreekaz.

Lan horren emaitza lez, datu batzuk be gehitu gura neukez.

2020an bakarrik 88.650 sinadura egin dira sinaduraren karpeta bidez, eta zerbitzu hori %275 hazi da.

2020an bertan 2,4 milioi EKS sinadura be bai (Egiaztatze Kode Segurua). Egunean 2.500 konexino kudeatzen doguz.

Office 365 tresnaren erabileran batez beste 52 personatik 1.600 personara igaro gara, eta deiak eta bilerak be nabarmen ugartu dira tresna horren bidez.

Hilean 850.000 autentifikazio online plataformetan; egunean, 28.300; 70.000 truke hilean elkarreragingarritasunaren esparruan.

Kanpora begiratzeari jagokonez, herritarrei. Lehenengo eta bat, zure galderaren alderdi bat zehaztu gura neuke. Aldundiak kanal anitzeko arreta-sistema baten aldeko apustua egiten dau estrategia digital barneratzailearen ardatz lez, eta ez bakarrik telefono eta APP Bizkaiarena, zure galderan adierazo dozun moduan; telefono eta web bideak aitatu gura zenduzala uste dot.

Kanal anitzeko arreta eskaintzen da, eta horrek herritarrei kanala eragozpen barik aukeratzeko hautua emoten deutse telefono bidezko edo aurrez aurreko erakunde digitalak eskaintzen dauzan zerbitzu eta edukietara heltzeko, eta 3 kanalak, hirurak, garrantzitsuak dira. Hiru kanalok garatzen jarraituko dogu eta, jakina, zerbitzua unean uneko errealidadera garatzen eta egokitzen joango gara.

Zure galderari zehatz erantzunez, Durango, Bermeo eta Gernikako udalerrietan zabaldu dan eskualdeko herritarrentzako arreta integraleko bulegoen sarea laster

osotuko da, Balmasedako bulegoa edegiten danean. Bulego horrek Enkarterriko eskualdeko bizkaitarrei emongo deutse zerbitzua.

Eta bulego horreek lurraldean zabaltzen jarraituko dogu, behar dauenari aurrez aurreko arreta emongo jakola bermatzeko. Daborduko balizko kokapen barriak aztertzen ari gara mapa hori osotzeko.

Esan deusudan moduan, proiektua finkatuta dago joan dan martian erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak sortzeko foru-dekretua onartu zanetik. Bulego horreek, besteak beste, baliabide elektronikoak erabilteko beharrezko laguntza emongo deutsee Aldundiagazko hartu-emona horrelan eukitea gura daben personei; identifikazino- eta sinadura-sistemak be emongo deutseez, eta Aldundi osoaren zerbitzuei buruzko informazioa emongo dabe, sailen dimensinoa gaintuz.

Eta hirugarren ardatz moduan, lurraldean ekintzailtza eta barrikuntza bultzatu gura dauzan trantsizino digitala aitatu dot.

GOVTECH sektoreari buruz ari garanean, Administrazino Publikoaren prozesuak hobetzeko teknologietan eta urtenbideetan arreta jarten daben erakundeen eta enpresen ekosistemaz ari gara, eta bai herritarrei emoten jakozan zerbitzuen bilakaeraz be.

Gobernu honek ekosistema horretan eragile traktore lez integrau gura dau. Jakina, ekosistema horretan zentro teknologikoak, unibersidadeak eta daborduko alkarlanean ari diran erakundeak egongo dira. Berbarako, Tecnalía Fundazioa zentro teknologikoagaz lankidetzan ari gara daborduko, autobideko korridore kooperatibo digitalizau eta sentsorizau bat ezarteko. Horrek aukera emongo dau Foru Aldundiak emoten dauzan azpiegitura-zerbitzuak garatzeko, edo, berbarako, Deustuko Unibersidadeagaz eta Reach inkubagailuagaz lankidetzan jarduteko, datuek bultzatutako urtenbideak barriztetako eta esperimentetako, eta eurei esker herritarren zerbitzu soziosanitarioak hobetu egingo dira.

Era hurbilagoan, BEAZegaz be lankidetzan aritu ginan BIOD! izeneko plataformaren bitartez, BEAZen laguntzagaz. Larrialdietako zerbitzuaren erronkari erantzuteko lanean ari gara, hau da, zelan kontrolau denpora errealean zerbitzu horretako ibilgailuek material egokia eta berrikuspen-egoera egokia daukiela.

Datuen babesaren inguruan daukazun kezka bera daukagu geuk be. Izan be, badakigu hori gure betebeharra dana, bete-betean.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Perdone, señora Etxanobe Landajuela, vaya finalizando. Dispone también del segundo turno. Muchas gracias.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Datuen babesaren inguruan daukazun kezka bera daukagu. Datua erakunde osoaren aktiboa dala uste dogu, ez unidade jakin baten aktiboa. Horregaitik, garrantzi handiena emongo deusagu Aldundiko beharginen prestakuntzari. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Etxanobe Landajuela. En el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora

Presidenta. Buenos días de nuevo, y gracias a la señora diputada por las informaciones facilitadas. Sin embargo, debo decir que aún hay unos aspectos que no han sido respondidos. Entiendo que se está impartiendo formación. Pero creo que cuando estamos hablando de digitalización, estamos hablando de más aspectos que de formación.

En un momento ha mencionado usted que esta transición digital supone un cambio cultural, y creo que es muy importante. Entonces, por una parte, un cambio cultural en el colectivo trabajador, pero también supondrá un cambio importantísimo en la propia estructura de la Diputación. Lo que la digitalización ofrece es colaboración, y yo veo a menudo que cada Departamento de la Diputación va por su lado, y eso también requerirá un cambio, con el fin de garantizar realmente esa colaboración que ha mencionado usted en un momento. Y mi intención, cuando lo he planteado, especialmente de cara al interior, es que yo creo que hay que tener en cuenta que los cambios no pueden producirse del 0 al 100. Y que ahí hay que dar diferentes pasos, pero que no podemos darlos todos al mismo tiempo.

Me ha parecido interesante el diagnóstico que usted ha planteado que han realizado o están realizando, para definir los nuevos perfiles. Pero creo que en esa labor resulta imprescindible la negociación sindical; usted ha mencionado “cuando sea necesario”. Yo entiendo que siempre, y en este cambio existe un elemento fundamental. Todas las personas, me da lo mismo que sea un/a director/a, o un/a empleado/a, u otro/a, tienen que estar preparadas para el cambio, lo que requiere un trabajo de concienciación. No se pueden hacer las cosas por decreto, lo he mencionado antes. Digo por decreto, no es que haya que sacar un decreto de arriba abajo, sin más, pero yo creo que ahí sí hay aspectos importantes.

De cara al exterior, me alegro de que haya mencionado kanal anitza eta hiru kanalak be garrantzitsuak dirala, maila berean. Oso ondo erexten deusat horri. Ea Iruarizaga jaunari aitatzen deusazun; izan be, Errentaren kanpainan aurrez aurreko arreta oso txikia izango dala esan da, eta atzo emondako datuek argi erakutsi dabe, ez dakit 63 edo 93 ziran, buruz nabil, argi eta garbi erakutsi dabe ez dala hori bultzatu, ezpada benetan alderdi txiki-txiki lez itxi dala. Garrantzitsua dala uste dot, ez dakigu zenbat denpora, baina, jakina, persona guztiek interneta normaltasunez erabili arte, eta ez dakit nozonoz ikusiko dogun, orduan pentsau geinke aurrez aurreko arreta sano txikia izango dala.

Desconozco cómo llevarán a cabo eso, pero a eso no han respondido, y para nosotros es importante conocer qué medidas adoptarán contra la brecha digital. La brecha digital es una realidad. Si miramos los últimos datos facilitados por el EUSTAT, de las personas de edad madura, por ejemplo, las personas mayores de 65 años únicamente utilizan internet un 40%. Ahí es preciso hacer algo. Entiendo que no es competencia únicamente de la Diputación. Por eso planteamos que se lleve a cabo en colaboración con otras instituciones. Pero creo que hay que adoptar medidas para posibilitar que todos los ciudadanos y ciudadanas utilicen internet, y para que utilicen la vía telemática con comodidad, y bien y con seguridad. Ahí existe una cuestión, y yo creo que GOVTECH, y ustedes continúan diciendo que ahí tiene que haber un sistema para tomar decisiones para el uso de esas técnicas, y yo estoy muy de acuerdo, pero entendemos, y lo he mencionado antes, que tiene que garantizarse dónde estará el control, porque es muy arriesgado. Porque hoy en día existen muchísimas empresas que piensan que se meten los datos, se le da a un botón y que está ya el algoritmo, pero eso no es lo más importante. Lo más importante es lo que he mencionado antes, que los datos estén bien, y eso lo tiene que realizar la Diputación, y luego son los resultados. Y el resultado lo tendrá que facilitar el grupo interdisciplinar, donde tendrá que estar la Diputación.

Entonces, mi recomendación es: negozio-unidade baten orde, datuak aztertzeke kabinete bat sortu behar dozuela; eta, Bengoetxea andreak be erabilten eban hori, baina, mesedez, ea ez darabilzun “datua”, “datuak” diralako, anitzak diralako; eta hori “emakumea” eta “emakumeak” erabiltea lez da. Izan be, ez dago “datua”; “datuak” dira. Beraz, zure sailean datuak aztertzeke kabinete bat sortu daizula gomendatzen deusut, langile

kualifikatuakaz, eta horretarako prestakuntza behar da, eta enpleoa sortu daitela, eta enpleo publikoa eta kalidadezko enpleoa, planteetan ari zarien enpleotik sano desbardina dana, nahi-ta negozio-unidade horretan zer sortu gura dozuen askoz hobeto jakingo dogun. Eta bakar-bakarrik esatea ez dakidala zergaitik, baina Aldundiak BCAM alkartegaz (Matematika Aplikatuaren Ikerketa Zentroa) daukan hitzarmena aitatzera ahaztu egin jatzula. Izan be, benetan enpresei datuen azterketan laguntzen ari da lanean. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Señora Urkaregi, estoy totalmente de acuerdo con usted en la importancia de la formación, así como en la necesidad de un cambio cultural y en la propia estructura de la Diputación. Y me gustaría decirle que en todo este cambio cultural estamos trabajando con una planificación, para una formación del personal como en la digitalización, y que debemos realizar esa transformación o cambio aunando las dos vías. Eso es un poco, pero estoy de acuerdo con lo que usted ha manifestado.

También me decía qué es lo que vamos a hacer concretamente para evitar esa brecha digital y qué medidas vamos a adoptar junto con las otras instituciones.

Horri jagokonez, nik azpimarratu egin gura neuskizu Bizkaiko Foru Aldundiaren eredua, kanal anitzeko arreta-eredua, herritar mota guztiakan pentsauta dagoala: izapide bat euren kabuz egin leienak, heldutasun digitala gero eta handiagoa euki leienak, edo gaitasun digitalik ez daukienak, eta sano kontziente gara kolektibo hori be badagoala.

Kanal anitzeko arreta-eredu horrek mekanismoak daukaz herritarrei Administrazioagazko hartu-emonetan laguntzeko, bai telefono bidezko kanalean, bai aurrez aurrekoan edo digitalean be. Eta lehen aitatu dozun idea jasoz, erregistroaren arloko laguntza-bulegoetako funtzionario gaitu deitutako horreek euren eginkizunen artean izapidetzeko laguntza eskaintzea daukie jasota, eta modu telematikoa egitera behartuta ez dagoan eta bulegora laguntza hori eskatzera hurbiltzen dan persona baten izenean aurkeztu behar dabe eskaera. Arestian aitatu dodan bulegoen dekretu hori onartu aurretik, GERTU bulegoak de facto laguntza-bulego lez funtzionetan ari zirala zehaztu behar dot, herritarrei laguntza emoteko Bizkaiko Foru Aldundiko zergei, nekazaritzari eta gainerako sailei jagokezan izapide horreetan. Zerbitzu espezifiko bat nabarmentzen da horretan, adinekoentzatko arreta juridikoko zerbitzua, hatan be, Gizarte Ekintza Sailak emoten dauena astean behin GERTUko lokaletan eta IAC batzuetan.

Aurten 994 hitzordu emon dira, 2019an 379 hitzordu emon ziran bitartean. Halanda be, badakigu hondino hainbat lan egin behar dana arlo digitalean zailtasun handienak daukiezan hirugarren sektoreko kolektiboakana, adinekoakana edo beste batzukana heltzeko; beraz, zentrau egingo gara eta eurekaz lankidetzan arituko gara. Helburua atzean inor ez ixtea da. Hondino asko dago egiteko, baina BAT azpiegituran egindako garapen garrantzitsuari esker, Aldundiak zerbitzuak emon eta bulegoa zabalik euki ahal izan dau eguneko 24 orduetan. Datu batzuek, 2020. urtekoak eurek danak, baieztapen hori bermatzen dabe.

Telefono bidezko arretari jagokonez, esaterako, 862.532 dei artatu dira, eta, ondorioz, zerbitzua %44,83 ugaritu da, egoitza elektronikoko laguntza-zerbitzu barrian

5.500 dei baino gehiago artatu dira-eta.

Arreta digitalari jagokonez, izapidetze digitalak bilakaera garrantzitsua emon dau. Izan be, 2020an 700 izapide elektronikoko baino gehiago izan dira eskuragarri egoitzan. Legealdiaren hasieratik, 130.970 sarrera izan dira egoitzan, hau da, guztira 358 sarrera egunean.

2020an bertan 2,5 milioi jakinarazpen inguru be emon dira egoitzaren ingurune digitalaren eskura, %16ko igoera egon da.

Sano garrantzitsua, Bizkaia barriari zerbitzu alkarreragingarriak gehitzen deusguz, Aldundiko sailen eta gainerako erakundeen eskura dagozanak.

Legealdia hasi zanetik, 71 zerbitzu alkarreragingarri gehiago jarri dira herritarren esku, hau da, 1.500.000 datu-transmisino inguru egin dira 2020an.

Eta aurrez aurreko arretari jagokonez. Aurretiko hitzorduaren aplikazioa Aldundiko sailetan eta arreta integraleko bulegoetan zabaldu da, eta 209.253 hitzordu artatu dira Q-Flow bidez, hori ezarrita dagoan unidadeetan.

Amaitzeko, esan gura neuke Aldundia gobernu digital barneratzailerako trantsizioa bizkortzen ahaleginduko dala. Badakigu antolatu barik eta aldaketari aurre egiteko prest dagozan personak barik, ezin dala aldaketarik gertatu, eta, horregaitik, hausnarketa sakona egiten ari gara administrazio honek urte gitxi batzuetan eskatuko dauzan profilen inguruan, trebetasun digitalen arloko prestakuntza-plan zorrotz batez.

Azken baten, kanal anitzeko arreta-sistema baten aldeko apustua egiten dogu, esan deusudan moduan, herritarrei aukera emoten deusena Foru Aldundiak eskaintzen dauzan zerbitzuak eta edukiak eskuratzeko kanala askatasunez hautatzeko, horretarako beharrezkoak diran metodologia eta tresna teknologikoak garatuz eta administrazioaren sinplifikazioa sustatuz.

Esparru horretan, persona guztiei lagunduko deutsegu behar dabezan izapide guztietan, digitalak izan edo ez, eurek, bardin-bardin, eskuratu ahal izan dagiezan, konektibidade, baliabide edo gaitasun arazoakaitik eskuratu ezin dabezanei be bai. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta. Y el tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001507](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: La futura Ley de Aportaciones y la postura de la Diputación Foral de Bizkaia en la negociación de la misma.

3.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001507SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Etorkizuneko Ekarpenen Legea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera horren negoziazioan

Documento
[\(R.E.11/E/2021/0001507\)](#)
Expediente: [\(11/B/18/0002290\)](#)

Principal:

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0001507SE\)](#)
Espedientea: [\(11/B/18/0002290\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Mahaikideak, ahaldun jaun-andreok, buenos días a todos y a todas. Egun on guztioi.

Modu grafikoan, Batzar Nagusietan eztabaida hau zer dala-ta berpiztu dogun azaltzeko, nahikoa da esatea azken Ekarpenen Legearen luzapenagaz indarraldiagaz baino denpora gehiago daroagula, hau da, bi bosturteko luzapena. Izan be, indarraldia bukatu eta hamarkada batera, euskal administrazioen arteko ekarpenak arautzen jarraitzen dogu 2007an onartutako lege baten oinarrituta, eta hasiera baten 5 urtez indarrean egoteko pentsauta egoan.

Bien bitartean, denporaldi horretan, gure lurralde historikoetako errealidadeak aldatu egin dira, izugarri aldatu be, eta, ondorioz, ezinbestekoa da gaur egun berrikustea. 10 urte horreetan egoera sozioekonomikoak ez dauka zerikusirik 2007ko legea onartu zanean egin ahal izan ziran aurreikuspenakaz. Izan be, beste inguruabar garrantzitsu batzuen artean, Mendekotasun Legea, Gizarte Zerbitzuen Zorroa eta Euskadiko Udal Legea onartu dira, eta horreen bitartez gizarte-laguntzetako erantzukizunaren zati bat udalei transferidu jake. Horren guztiaren ondorioz, udalek eta foru-aldundiek gastu handiago bati egin behar izan deusie aurre. Eta gastu-igoera horreek ez datoz bat jagokezan baliabide-igoerakaz, koefiziente bertikala 2007an geratu dalako trabauta.

Orain arte, Ekarpenen Lege barria ez aurkezteko atxakiak hainbat izan dira. Legea ez izapidetzeko jarri zan azken atxakia da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere xedapen gehigarrietan, txosten bat eskatzen ebalara erakunde-mailak ondo edo txarto finantziauta egozan zehazteko, legeek eta Estatutuak esleitzen eutseezan eskumenen arabera. Txostena aspalditik dago. Gainera, dakigun moduan, lege horrek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan udal-mailako 3 ordezkariaren parte-hartzea jasotzen dau. Eta, beste alde batetik, aldatu egiten dau Kontseilu horren erabagiak hartzeko prozedura, landu beharreko gaiaren arabera.

Gaur egun, badirudi zailtasunak beste batzuk izan behar dirala; aspalditik ari gara ikusten Ekarpenen Lege baten onarpena atzeratu egiten dala, Ekarpenen Lege barri bat, errazoi askogaitik guztiz beharrezkoa dana. Baliabideak banatzeko sistema batek gastu-politika barrietara egokitzeko gai izan behar dauelako; izan be, baliabideak banatzeko sistema ez da sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren pieza isolatu bat. Izan be, diru-sarreraren izateko errazoiak politika publikoak garatzeko beharrezkoak diran gastuak ahalbidetzea da. Horrelan, denporan zehar, gastua egiten danean, gizartearen behar aldakorrei, arduradun publikoen orientazio politikoei, ekipamentu-egoera desbardinei eta lurralde desbardinatetako herritarren aniztasun sozialari erantzuten saiatu behar dau, gizarte-eskubide batzuk hedatzeak, Gizarte Zerbitzuen Zorroa hedatzeak eta Legea indarrean jarri zanetik gerora sortutako egoera ugariak erronka barriak dakartseezalako aldundiei eta udalei. Eta erronka horreei baliabide egoki barik egin behar deutsee aurre, eta, ondorioz, erakunde horreen aurrekontu-beharrak handiagoak dira.

Izan be, koefiziente bertikalak eguneratu egin behar dira, administrazio

guztiek euren herritarrek merezidu dabezan gizarte-zerbitzuak emon ahal izan dagiezan, eta horretarako beharrezkoa da foru-aldundiek eta udalek partaidetza-koefiziente nahikoa izatea, lehen aitatu doguzan egungo behar horreei aurre egin ahal izateko. Izan be, ez da gauza bera aldundiek diru-bilketaren %30agaz geratzea, hori dalako udalakaz banatu behar dabena, edo %35 eukitea, orduan udalek finantzaketa handiagoa eukiko dabelako, eta foru-aldundiek finantzaketa handiagoa eukiko dabelako.

Adibide erraz bat ipiniko dot: %70 badaukagu, ba, %15 Aldundientzat, %15 udalentsat. %60 balitz, %20 Aldundientzat, %20 udalentsat. Horren sinplea, eta horren erraza. Eta horregaitik defendidu dogu koefiziente bertikalaren jaitsiera erreala eta eraginkorra, udalerrien eta aldundien finantzaketa-arazoak konpondu ahal diralako. Izan be, foru-aldundiek eta udalek finantziazioa behar dabe, eta egungo ereduagaz, erakunde horreek finantziazio gehiago izateko aukera emoten dauen formula bakarra koefiziente bertikala jaistea da.

Gure alderdiak, beste alderdi batzuek eta euskal geografia politikoko bost erakundeetatik lauk, aldundiek eta udalek, koefiziente bertikala benetan eta eraginkortasunez jaisteko beharra planteau dabe, udalerrien eta foru-aldundien finantzaketa-arazoak konpondu ahal izateko.

Koefiziente horizontalak be aldatu egin beharko diralako; horreek kalkuletako, lurralde bakoitzeko BPGa, diru-bilketaren koefizientea eta beste faktore ekonomiko batzuk hartuko dira kontuan. 2020an honelan ezarri ziran: Bizkaia %50,39, Gipuzkoa %33,34 eta Araba %16,27.

Eta Egokitzapen Funtsei jagokenez, beharbada ez lirateke beharrezkoak izango koefiziente horizontalak zuzenak balira, eta Legea bera indarrean dagoan bitartean banaketa ekonomikoak be zuzenak balira.

Bizkaian, 2014ko Politika Orokorreko Osoko Bilkuran, orduko Ahaldu Nagusiak ohartarazo eban 2011tik hona luzatuta dagoan egungo Ekarpunen Legea ordeztuko dauen hurrengoak kontuan hartu beharko dauela, eta berbaz berba aitatu dot, “bilketaren ratio eskusiboa ez ezik, Bizkaia gehien bilduko dauen lurraldea, txiroena eta ahalegin fiskal handiena egingo dauena be izan daitela. Eta Ekarpunen Lege barri baten aurrean, hori guztia kontuan hartu beharko da, ez bakarrik bilketaren ratio eskusiboa”.

Bestalde, Rementeria Ahaldu Nagusiak berak, 2015ean egindako inbestidura-eztabaidan honakoa autortu eban: “Bizkaia eskuzabala izan da beti, eta Herrialdea gobernu-maila guztien artean eregi gura izan dau. Biztanle gehien daukazan lurraldea gara, diru-sarrera fiskal handiagoak daukaguz, baina onartzen dogu gure ahots instituzionala beste bat gehiago izatea. Parekotasun egoera onartzen dogu, ez gara kexetan, baina eskuzabaltasun hori be agirian itxi behar da. Bizkaia eskuzabala izan da beti”.

Oraintsuago, aurtengo zezeilean, hain zuzen be, Rementeria jaunak ohartarazo eban arazo bat egon leitekela Bizkaia ekarpen handiena egiten dauen lurraldea dala jakintzat jo gura ezker. Era berean, jarratasun objektiboa eskatuko dauela adierazo dau lege barriar diru-bilketaren zenbateko gehiago erabili behar izan daiten Euskal Autonomia Erkidegoko gastu komunak ordaintzeko eta Egokitzapenerako Funtz Orokorra horniduteko. Izan be, egungo Arauaren arabera, Bizkaia funts hori ekitaldi guztietan hornidu behar dau, baina ez dau jasoten, historikoki Arabara eta Gipuzkoara bideratu dalako, bilketaren koefizientearen arabera.

Ahaldu Nagusiak be esan eban beti adierazo dogun horretan be arazo bat egon leitekela, hau da, datu objektiboak Bizkaia ekarpen handiagoa egin behar izatea Euskal Autonomia Erkidegoko gastu komunetarako.

Ikusten dogun moduan, aldaketa-haizeek Ekarpenen Lege barriaren arauketaren gainean joten dabela emoten dau; ikusiko dogu zertan geratzen dan. Izan be, Ekarpenen Legea da, berez, Euskadiko finantzen funtsezko muna, eta mun hori erabagiterakoan Bizkaiak gure lurraldeak Euskadin daukan pisu espezifikuari egokitzen jakon jarrera euki behar dau. Alperrik galdu behar ez dogun aukera da, egin beharreko aldaketak dagoz, gure alderdiaren eta beste alderdi politiko batzuen, foru-aldundien eta Eudelen aldarrikapenak dagoz, urteetan zehar Legea aldatu behar dala proponidu dabenak, horrelan, herritarrakandik hurbilen gagozan foru- eta udal-erakundeok baliabide gehiago euki daiguzan.

Eta badakigu gure sistemaren oinarria akordio egonkorrak lortzea dana, eta gure sistemak negoziatuko gaitasun handia eskatzen dauela, batez be ekarpenei buruz ari garanean, interes kurutzatuak dagozalako, guztiak legitimoak, eta neurri handi baten, eta kasu askotan, kontraesanekoak. Bat gatoz aldaketa-jarrerakaz, eta gure mendeetako negoziiazino-eredua, autonomia eta akordioa funtsezko elementuak diran eretxiagaz be bat gatoz. Juridikoak ez diran elementu horreek dira, sano elementu immaterial horreek, baina sistemak funtzionetea eragiten daben elementuak dira.

Baina akordioak bizkaitarren interesen kontura ez daitezala izan be gura dogu; izan be, Ahalduen Nagusiak, gai honetan eta beste edozeinetan be, Bizkaiko eta bizkaitarren interesen alde egin behar dau lehentasunez. Eta gainerako erakundeakaz akordioa oinarri horren gainean eregi behar dau. Modu grafikoan esango dot; guztien berezitasuna beti batzuen berezitasunaren sakrifizioan ez daitela oinarritu gura dogu, kontuan hartu beharko dalako tradizioz Bizkaia dala pisu demografiko, ekonomiko eta tributario handiena daukan lurraldea, eta hori gure jarrera negoziatzailean islatu behar da.

Hauxe da Bizkaiko erakundeen eta gure herritarren interesen alde egiteko unea, Bizkaiak daukan pisu ekonomiko, fiskal eta demografikoagaz bat datorren jarreran.

Horregaitik guztiagaitik, Ahalduen Nagusi jaunari honakoa galdetzen deusat: zeintzuk dira Ekarpenen Legearen negoziiazinoan bizkaitarren interesak defendiduteko Bizkaiko Foru Aldundiak daukazan planteamentuak? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta; buenos días a todos y a todas las junteras. Buenos días.

Como ha manifestado, señora Fernández, usted ha formulado su interpelación en relación a la Ley de Distribuciones, y me gustaría comenzar con una contextualización, tal y como usted lo ha hecho, sobre todo porque me parece que es importante para responder de manera adecuada a su pregunta. Badakit ondo ezagutzen dozuena sistema. Ezagutzen dozue, edo ezin hobeto ezagutu beharko geunke, baina itxi eidazue gogora ekarte barrero, itaunari behar dan moduan erantzun degiodan.

Egia da une honetan indarrean dagoan legea bosturteko baterako onartu zana, Ekarpenen Legea, martiaren 23ko 2/2007 Legea, indarrean jarraitzen dauena. Baina haren metodologia urtero aplikau leiteke lege barri bat egon arte, eta, horretan guztian, garrantzitsua da azpimarratzea Lege horren arabera egiten diran ekarpenakaitik eta banaketakaitik funtzionetan dauen sistema publiko bat daukagula Euskadin, erakunde-maila guztietan, kalidadezkoak eta garrantzitsuak diran zerbitzu publikoak emoten dauzana. Beraz, sistemak funtzionetan dau.

Hobetu leitekez? Bai, dana hobetu leitekela uste dot. Baina Kontzertu Ekonomikotik datorren oinarri garrantzitsu bat dago, ezin doguna alde batera itxi, eta ezin doguna ezelan be ahaztu. Geure zergen bidez, egiten diran ekarpen horreen bidez, guk geuk, hatan be, euskal herritarrok eusten deutsegu Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diran zerbitzu publiko, inbersino eta politika guztiei. Gu geu gara. Eta erakunde baxotxean baliabide horreek sano garrantzitsuak diran 3 elementuren ondorioz zehazten dira. Batetik, Kupoaren zehaztapena da; bestetik, koefiziente bertikala, eta hirugarrenik, koefiziente horizontalak dira.

Tira, Kupo. Kupoaren zehaztapena lege bidez finkatzen da. Zuok be dakizuen moduan, azkena abenduaren 28ko 11/2017 Legea da, 2017/2021 bosturtekorako, eta zenbateko hori, Kupoaren likidazio horretan finkatzen dana, aldatu egin leiteke, Legeak berak ondo dinoan moduan, apliketan diran eguneratze-indizeak eguneratzearen ondorioz, bai eta etorri leitekezan transferentzia barrien ondorioz be. Behin Kupo likidoa zehaztuta (2020. urterako 1.302 milioi euro izan ziran, 1.302 milioi baino gehiago Euskal Autonomia Erkidego osorako), Kupo ezarri ondoren, gainerakoa Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuari Euskadiko organo komunek egin beharreko ekarpenaren helburua da, Legeak berak dinoan moduan, eta ehuneko horreek modu bertikalean eta horizontalean zehazten dira.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren ekarpen bertikala, ondo dakizuen lez, %70,04ko ekarpena da, ekarpen orokorra. Gero, berariazko ekarpen batzuk be egin behar doguz, poliziaren arloan, gerora onartu diran eskumen barrien arloan. Horrelan, gainera, badakizue Finantzen Euskal Kontseiluan 2021eko zezeilean egin genduan 2020ko likidazioan, Bizkaiko Foru Aldundiak 4.314 emon eutsazala Eusko Jaurlaritzari; 4.314 milioi baino gehiago ekarpen orokorrean eta 330 milioi baino gehiago ekarpen espezifikoa.

Eta, azkenik, koefiziente horizontalak daukaguz. Koefiziente horizontala, eta hori garrantzitsua da, Legearen arabera zehazten da, Lurralde baxotxaren errentaren arabera zuzenean lortzen dan ekarpen-koefizientearen %70aren arabera, Lurralde baxotxak une baxotxean daukan errentaren arabera. Gainerako %30a lurralde historiko baxotxari jagokon zerga-ahaleginaren alderantzizkoaren arabera lortzen da, lurralde historiko horren bilketa-ahalmenaren arabera haztatuta. Halanda ze, %30 lurralde baxotxa urtero eta une baxotxean egiten ari dan ahalegin fiskalaren alderantzizkoa da. Eta legeak berak zehazten dau kontzeptu horreek zelak kalkulau behar diran, eta modu objektiboan eta argi eta garbi zehazten dau. Horrelan, errentarako, merkaduko prezioen araberako BPGa da, azken 4 urteetako datuen pisu erlatiboan batez besteko aritmetikoa kontuan hartuta. Beraz, zentzuzkoa dan moduan, urtero eguneratzen da, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera azken 4 urteetako erreferentzia hori kontuan hartuta. Eta zerga-ahalegina zerga-kontzeptu guztien urteko bilketaren zenbatekoaren (zuzeneko udal-ordainarazpenenak barruan dirala) eta errentaren arteko lotura da. Beraz, hor sartzen dira aldundien eta udalen aurrekontu guztietako 1. eta 2. kapituluak, urtero, urtero. Halanda ze, Legeak berak zehazten dau. Parametro objektiboa da, modu objektiboan hartu leitekena, guztiz modu objektiboan hartu leitekena.

Kontzeptuak beste batzuk izan leitekez? Ba bai, izan leitekez. Baina nire ustez, instituzionalki ez dago zalantzarik BPGa eta ahalegin fiskala sano ondo, sano-sano ondo balio daben bi parametro dirana lurralde bateko errenta osoa ezagutzeko eta lurralde horretako herritarrek zergak ordaintzeko zenbat erabilten daben jakiteko. Halanda be, badagoz beste faktore batzuk be, egungo ekarpen-sistema baldintzatzen daben beste mekanismo batzuk. Gobernuari ekarpena egin aurretik, indarrean dagoan Ekarpenean Legeak berak ezarten dau BEZetik eta zerga berezietatik datozen baliabideak lurralde baxotxerako zehazten diran koefizienteetara egokitu behar dirala; horrelan, aldundi baxotxak benetan biltzen dauenaren eta koefiziente horizontal horren arabera jagokonaren arteko alde emoten edo jasoten dau. Eta horren argibide da, hatan be, Bizkaiak Autonomia Erkidegoko zerga horreen %59 inguru biltzen dauela, BEZari eta zerga bereziei jagokenez, eta jagokon koefizientearen inguruko soberakina (2020an, %50,39 izan zan) emon egin behar dauela.

Eta horretaz guztiaz gain, itxiera-mekanismo bat dago, mekanismo bat, itxiko deustazue itxiera edo konpentsazino esamoldea erabiltea, eta Egokitzapenerako Funts Orokorra da, hain zuzen be. Dakizuen moduan, diru-bilketa osoaren % 1ez horniduta dago, eta aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak emoten dabe, euren koefizientearen arabera, eta bilketaren %99ra edo bilketa-koefizientera heltzen ez diran lurraldeen, aldundien artean banatzen da. Legeak berak ezarten dau Egokitzapenerako Funts Orokor hori nahikoa ez balitz, Finantzen Euskal Kontseiluak, izapide egokiak egin ondoren, ehuneko hori ez dan beste ehuneko bat zehaztu leiela be. Tira, egoera hori 2019an gertatu zan, Finantzen Euskal Kontseiluak aho batez gehitu ebanean, edo ebatzi ebanean bilketaren %0,45eko ezohiko funtsa sortzea.

Azken baten, zer esan gura dot horregaz guztiagaz? BEZa eta zerga bereziak dirala-ta egiten diran barruko doikuntzek, kupoaren zehaztapenak, Eusko Jaurlaritzari koefiziente bertikalean egiten jakon ekarpenak, koefiziente horizontalek, Egokitzapenerako Funts Orokorrak, elementu horreek guztiek Bizkaiko udalek, Aldundiak eta Batzar honeek be izango dabezan baliabideak baldintzatzen dabezala. Halanda ze, horreek dira etorkizuneko Ekarpenen Legean argitu beharreko gaiak.

Testuingurua egin ondoren, galdera erantzuten hasiko naz. Gure jarrera, Ahaldun Nagusi honen jarrera, Herrialde honetako zerbitzu publikoen iraunkortasunaren oinarriaren alde egitea da, erakunde-maila guztietan. Hori erantzukizunez jokatzera da. Bizkaiko Foru Aldundiak, bai, leheneto eta bat, lehentasunez, zalantza barik, baina lurraldeko udalek be bai. Eta Gobernuak be bai, berak be bai. Alderdi guztiok gura doguz baliabide gehiago, guztiok. Zertarako? Ba, programa gehiago eukiteko, politikak eta zerbitzu publikoak gehiago suspertzeko.

Baina sistema banatzeak bermatzen dau, dagozan diru-bilketaren mailakaz, guztiok handituko edo murriztuko dogula baliabideetan daukagun partaidetza, pisuaren arabera, lurralde moduan daukagun pisuaren arabera, jakina. Pisu hori, esan dot eta azpimarratu egingo dot, koefiziente horizontal horren araberako parametro objektibo bat da, eta esan dot eta azpimarratu egingo dot be, BPGa eta ahalegin fiskala alderantziz, urtero, unero.

Koefiziente bertikalari jagokonez, badakigu hezkuntza-, osasun- eta segurtasun-zerbitzu publiko garrantzitsuakaz, gizarte-politikan inbertiduteagaz zerikusia daukan guztia gizarte-babeseke sistema bat daukaguna, DBE, enpleoa sustatzea, eta hainbat eta hainbat politika Eusko Jaurlaritzak be erabilten dauzana, non eta Lurraldean. Danok gura dogu gehiago, baina, zorionez, funtzionetan dauen sistema bat daukagu, kalidazeko zerbitzu publikoak emoten ari gara, eta barriro dinot funtzionetan dabela. Hobetu egin leitekezala? Seguru, seguru, duda barik, hobekuntza horretara joan behar dogu, duda barik.

Lurralde bakotxaren pisuari eta ekarpenari jagokonez, datu objektiboak eta egiaztauak, BPGa eta ahalegin fiskala azpimarratu ditut. Datu estadistiko horreen bidez aldagai batzuk aldatu leitekezala zehazten bada, edo aldagai barriak edo parametro barriak agertzen badira, lurralde bakotxaren pisua eta aberastasuna zehazteko zehatzagoak diranak, gu, Bizkaian, aztertzeke prest gagoz. Baina hori ez da jazo azken 15 urteotan, ez dago zehaztapen barririk, ez dago aldagai barririk Lurralde bakotxaren pisua hain zehatz zehazten dauenik. Eta gero Egokitzapenerako Funts Orokorra daukagu, eta, esan dodan moduan, itxiera-klausula lez funtzionetan dau.

Beraz, egungo ekarpen-sistemak eta osteko baliabide publikoen banaketak erakunde-maila guztietan funtzionau dau. Bizkaiko Lurralde Historikorako be egokia izan da, eta gure jarrera lege barri baten antzeko ekarpen-sistemari eutsi degiolar da, lurralde bakotxaren pisua ahalik eta objektiboan egiaztau ahal izateko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. Y en el turno de réplicas, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Eskerrik asko zure azalpenakaitik be, Ahaldun Nagusi jauna, Rementeria jauna, baina nire jesarlektik zure agerraldia entzuten egon nazan bitartean, erantzunaren erantzun-txandara urteteko gogoia euki dot eta Ramiro González jauna deitzekotan egon naz. Izan be, Gernikako Batzar Nagusietan egon beharrean, bat-batean lekuz aldatzen ginala iruditu jat, beste lurralde batzuen interesak defendiduteko. Izan be, herrialdeko interesak sano garrantzitsuak dira, hara, guztiok gara alderdi politikoetako kide; Euskadigaz, gure lurragaz atxikimendua daukagu, baina gure eginkizuna hemen, tribuna honetan, ez da hori, ezpada bizkaitarren interesak defendidutea.

Edozelan be, tira, ez daukaguz zerbitzu publiko txarrak, baina hobetu leitekeez, zugaz bat nator. Lurraldean beharizan ugari daukaguz. Orain dala gitxi tribuna honetan metroaren lineetan finantzaketarik ez daukagula eztabaidatu dogu. Halanda ze, nire ustez, eta sano tonu atseginean esan gura dot, baina beste aldundi biei, Eusko Jaurlaritzari uneren baten esan beharko jake, Bizkaitik eta bizkaitar lez: nahikoa da! Eta heldu da gure lurraldearen interesak defendiduteko unea. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren interesen ardura hartu behar dogu; hara, ondo baten arduratzen zarie horreek defendiduteaz, ez daukat ezelako dudarik ondo defendiduta dagozana. Izan be, esan beharko jake beharbada berrikusi egin behar dirala Eusko Jaurlaritzak bizkaitarrentzat daukazan alperrikako egitura batzuk.

Euskaldunok ordaintzen doguz zergak, tira, bai, baina ñabarduraren bategaz: bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak gara. Eta, jakina, zergaitik dinot unea dala, eta daborduko nahikoa dala esateko unea heldu dala? Izan be, Bizkaia Egokitzapen Funtz horretan dirua jarten dau, baina batez be beste lurralde batzuek ateraten dabe onura, eta baliabideak banatu egin behar izan diranean, 2008ko krisitik diru-sarrerak gero eta gehiago berreskuratuta atera gara, eta beti da errazagoa Euskadin erakunde desberdinen finantzaketari ekitea, foru-ogasunetako diru-sarrerak gero eta handiagoak diranean.

Baina, zer gertatzen da une honetan? Eta Iruarizaga jaunak be ondotox daki, Bizkaiko Aurrekontuak %8,9 berreskuratuko dirala aurreikusi dalako. Atzo, BBVAren txosten batek inoan hor %5 eta pikuan gagozala, eta baikorrak izanda eta daroagun txertaketa-erritmoagaz, beharbada berreskurapen-ehuneko hori %6 ingurukoa edo horren artean ibili leitekela; holan izango al da! Eta danok sano baikorrak izan gura dogu tribuna honetan eta Batzar Nagusi honeetan, baina ez dau emoten errealdadea zentzun horretan asko laguntzen ari jakunik. Eta, hori gitxi balitz, kalidadezko zerbitzuak daukaguzala esanda, hara, gauzak nahiko ondo dagozala, danak nahiko ondo funtzionetan dauela, tira, bai, baina Aurrekontu horreetan bertan, gorakada horregaz, gainera, zorpetzea 294 milioi euro gehiago izatea aurreikusten da, 300 milioi euro inguru, pasa dan 2020an erabili behar izan genduzan milioika euroko zorpetzeari be gehituko diranak.

Errezeloa daukat, Urkaregi Etxepare andreak esan dau, eta neuk be esango dot. Izan be, ezinezkoa dalako tribuna honetara urtetea, bizkaitarra izatea eta errenta-aitorpenari erreferentziarik ez egitea, nahiko ondo funtzionetan daben zerbitzu publikoak daukaguzala dinogunean.

Hara, nik Bizkaiko hazkundearen desfase hori, zorraren hazkundearen desfase hori be ez dot uste zirriborro horreekaz konpentsau ahal izango danik. Izan be, batzuek kasu anekdotikoak izan dirala dinoe, milaka gitxi batzuen kasuak. Tira, hori guztia baino askoz orokorragoa da, zergadunek emoten daben, emoten dogun egiazkotasun-presuntzino horregaz, Errentaren aitorpenaren zirriborroa jasoten dogunean, tira, akats horreek beti dira

administrazioaren mesederako. Ez dakit nahikoak izango diran Aurrekontuan aurreikusitako hazkunde txikiago hori konpentsetako, zorpetze hori konpentsetako, jasoten doguzan zerbitzu publikoakaz nahiko pozik egoteko, eta tribuna honetan kontuan ez hartzeko. Eta, nire ustez, hau ez da ideologia kontu bat, alderdi politikoaren gorabehera bat. Bizkaia defendidutea da kontua, euskaldunak garalako, baina, jakina, zerga kontu honetan, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak gara.

Eta esan gura dot, gainera, zeuk be aitatu dozula, ez gaur tribuna honetan, nire lehenengo agerraldian neuk gogorarazo dodalako eskuzabaltasuna. Jakina, RA Eren arabera, eskuzabaltasuna gogoaren joera da, ohorea erabilgarritasunaren eta interesaren aurretik jarrea. Hara, solidarioak izango gara, nire ustez, bizkaitarrak eskuzabalak izan garalako eta modu garrantzitsuan, batez be Eusko Jaurlaritzagaz. Izan be, baliabideen banaketa horretan ez dau inoiz bardintzen, ezpada irabazi.

Jakina, zer gertatzen da Ekarpunen Lege barriagaz? Hara, bai, funtzionetan dau, jakina, modu objektiboan hartu leitekezan elementuak daukaguz, hau da, aldatu egin behar diranak. Nik ez dinot modu objektiboan hartu ezin diranik koefiziente horizontala kalkuletako, ezpada aldatu egin behar dirala pentsau behar dogula etekina atera degiogun, Bizkaian hainbat gauza gertatzen diralako, bizkaitarrek daukiezan beharizan asko, eta ezin doguzanak artatu.

Prozedura bat dago, Finantzen Euskal Kontseilua akordio horretara heldu da, Eusko Jaurlaritzaz, lege-proiektua, eta Eusko Legebiltzarra, eta Batzar Nagusietan, ba, ea zelan pasetan dan aurretik gaia, egia bada Foru Gobernua ordeztuta dagoala, baina Batzar Nagusiek be zeozer esateko aukera euki beharko leukie. Horregaitik eskatzen deusut, araututa egon ez arren, hori gertatzen danean, eta espero dot berandu baino lehen izatea eta gure interesen mesedetan, eta nahi-ta modu informalean izan, Batzar Nagusi honeen erispidea eta eretxia jasoteko konpromisoa hartu daizula gaur tribuna honetan, koefizienteak geratuko diran behin betiko egoerari buruzko erispidea eta eretxia, Batzar Nagusi honeen eretxia etorkizunean Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalek izango daben finantzaketari buruz. Izan be, Euskadin egin barik daukagun erakunde-erreforma handia da Ekarpunen Lege barria. Aukera bat da gure ordezkariak defendidu ahal izan dagien, eta nik horretara animetan zaitut, Rementeria jauna, eta badinotsut, jokoan dagozan interes horreek defendiduteko babes emoten deusut, bizkaitarren eta lurraldeen interes instituzionalak eta pertsonalak, Euskadin Bizkaiak daukan indar garrantzitsu baten alde.

Nire ustez, nire taldeak gai honetan Ekarpunen Lege barriari jagokonez daukan jarrera laburbiltzen dauen gauza bategaz amaituko dot, oso modu grafikoan: guztien berezitasuna ez da beti batzuen, bizkaitarren berezitasunaren kaltetan oinarritu behar. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Tira, Fernández andrea, uste dot datuak mahai gainean ipini behar dirala, eta sano datu objektiboak izan behar dira, barrero dinot, sano objektiboak. Izan be, lurralde bakotxaren pisu erlatiboa eta pisu espezifikoak zehaztea da garrantzitsuena, haor dago gai honen gakoak.

Jakina, zuk dinostazu: “ez, Bizkaiaren jarrera defendidu behar dozue!”. Jakina, guk Bizkaiak emon behar dauena emon dagiala defendiduko dogu, hori da defendiduko doguna, emotea egokitzen jakona, ez gehiago eta ez gitxiago, Fernández andrea. Izan be, jakina, zure lehenengo eta bigarren agerraldietan esaten ari zarana da Eusko Jaurlaritzari emon beharreko bertikala jaitsi egin behar dala. Eta nik zera dinotsut, hara, eta zein datu objektibo daukazu hori baiezteko? Esan ahal deustazu zein datu objektibo daukazu, zein datu estadistiko, zein datu instituzional, datu akademiko, zertan oinarritzen zaran baieztapen horreek egiteko? Bat be ez, hau da, nire ustez, ikuspegi politiko batetik egindako baieztapenak dira. Aizu, oso ondo, baina ikuspegi politiko, ideologiko batetik.

“Hori jaitsi behar da, hori egin behar da!”. Aizu, ondo; ni datuetan oinarritzen naz, datuetan oinarritu gura dot. Une honetan, bi datu daukaguz erabat objektiboak, Bizkaiak ekarpenari jagokon pisua ezarteko: BPGa eta bizkaitarrek egiten daberen ahalegin fiskala. Eta horixe da, nire ustez, defendidu behar doguna, zentzun horretan Bizkaiak daukan pisua.

Zuk hementxe aitatu dozu, bertikala %5 jaistea aitatu dozu, horrelan esan dozu, beste adibide batzuen artean. Begira, errazoi handi bi be esango deustadaz, nire ustez, modu esanguratsuan aldatzea ez dala ona erakusteko.

Begira, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea aitatu dozu, eta erreferentzia ona da hori; izan be, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak berak, Xedapen Iragankorrean, zuk aitatu dozun txosten hori egitea beharrezkoa dala zehazten dau, baina ez dozuz txosten horren ondorioak izentau.

Txosten hori 2018ko garagarrean egin zan, eta, ondorioen artean, zera esatera dator: Autonomia Erkidegoko toki-erakunde bakotxaren, udalen finantza-gaitasuna sano desbardina dala maila indibidualen, nahi-ta udalek, orokorrean, finantzaketa egokia daukien euren eskumenak garatzeko. Horixe dino txostenak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek modu egokian erantzuten deutseela horreetako bakotxaren eskumenei, eta, orokorrean, gastuaren banaketa zuzen islatzen dala. Horixe dino txostenak. Halanda ze, Ekarpeneen Lege horri esker, eta barriro esango dot urtero egokitzen dala izentau doguzan baremu objektiboetara; gaur egun bizi dogun egoerak txosten hori jarten dau, eta txosten horrek bizi dogun egoera adierazoten dau.

Baina, bigarrenik, udalek eta aldundiek Eusko Jaurlaritzaren kontura baliabide gehiago izateak ez dau esan gura “per se” Bizkaiko herritar guztientzat ona danik. Izan be, badakigu erakunde-eremu bakotxak eskumen propio batzuk daukazana, eta eskumen propio horreek Bizkaiko lurraldean gauzatzen dira. Guk, Aldundi lez, eskumen batzuk daukaguz, udalek beste batzuk, eta Eusko Jaurlaritzak be bere eskumenak darabilz gurea dan lurraldean.

Halanda ze, bertikal horren bat-bateko murrizketa, hemen 5 puntuko murrizketa esan dozu; 5 puntu 750 milioi dira. 750 milioi Bizkaian be eskumenak daukazan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontutik di-da kentzen doguzanak. Begiratu ea hori ona dan edo ez bizkaitarrentzat. Nik ezetz uste dot, uste dot datu objektiboetan, modu objektiboan hartu leitekezan datuetan oinarritu behar garala. Une honetan Ekarpeneen Legeak horixe egiten dau, eta esanguratsua iruditzen jat halan izatea. Baliabide gehiago gura dodaz, jakina, baliabide gehiago gura dodaz! Guztiok bezala, alkate jaun-andra guztiok, ahaldun guztiok, baliabide gehiago gurako doguz danok. Baina ez daukat zuk daukazu eretxi bera. Horren inguruan ez dot zure moduan pentsetan. Nire ustez, barriro dinot, oso datu objektiboetan oinarritu beharra daukagu, lurralde bakotxaren pisu espezifikoak zein dan jakin behar dogu. Une honetan BPGaren datu horreek daukaguz eta ahalegin fiskalaren alderantzizkoa, eta, duda barik, erakunde guztietarako baliabide gehiago lortzeko modua aberastasun handiagoa lortzea izango da, jarduera ekonomiko gehiago lortzea eta kalidadezko enpleo gehiago lortzea. Eta, era

berean, bizi dogun osasun- eta ekonomia-krisi honetatik indartsuago ateratea be izango da, eta seguru nago horretan biok ados gagozana, eta seguru nago legebiltzar osoa be bat datorrena krisi honetatik be indartuta eta indartsu aterateko beharragaz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. El cuarto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001521](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: El Plan Estratégico de transporte público de Bizkaia para el período 2018-2028

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001521](#))

Expediente: ([11/B/18/0002296](#))

4.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001521SE](#))

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: 2018-2028 aldirako Bizkaiko garraio publikoaren plan estrategikoa

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001521SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0002296](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

El día 29 de marzo, en la última sesión de la Comisión de Transporte y Movilidad Sostenible, el Diputado señor Gómez Viar entregó a cada uno de los Grupos Junteros un ejemplar del Plan Estratégico de Transporte Público de Bizkaia 2018-2028. Debo hablar de retraso, pero únicamente lo diré una vez, porque no quiero moverme en el pasado, porque prefiero mirar al futuro, pero tenemos que decir que resulta evidente que el documento que entrega la Diputación Foral de Bizkaia en marzo de 2021 llega tarde, con tres años de retraso, y que, por tanto, algunas medidas que recoge el documento para ejecutar en los años 2019 y 2020 deben planificarse de nuevo en el calendario laboral.

En dicho Plan se recogen una serie de propuestas y actuaciones, y EH Bildu considera que deben ser explicadas, analizadas y priorizadas en estas Juntas Generales. La presentación del informe en la Comisión de Transportes y Movilidad Sostenible, señor Gómez Viar, fue escasa, bastante compleja de seguir. Percibimos la falta de una herramienta multimedia para acompañar a su voz, un sencillo Power Point, porque el documento consta de 469 páginas y resulta difícil analizar y valorar todas las actuaciones, pero mi grupo ya ha realizado dicha labor y por ello hemos solicitado esta interpelación.

Aurkeztu beharreko Plan Estrategikoaren dokumentuak 5 atal nagusi ditu. EH Bilduk atal horreetako bakoitzean interpretatu dauenari buruzko irakurketa labur bat egin gura neuskizu. Izan be, Gómez Viar jauna, nire itaunaren helburua ez da argi eta garbi dagoana edo dokumentuan jasota dagoana kontau deiguzula, hori neuk egingo dot oraintxe

bertan. Itaunaren helburua da Planak jasoten dauzan proposamenakaz hemendik aurrera zer egingo dozun kontau deiguzula.

1.- Diagnostikoan zehatz-mehatz jasoten da egungo egoera, eta konpondu beharreko ahulgune batzuk atzemoten dira, eta hurrengo ataletan azaltzen dira. Hiru ardatzetan oinarritutako ikuspegia egiten da: Eskaintzaren ezaugarriak, Eskariaren ezaugarriak eta Jasangarritasun ekonomikoa.

Atal horretan, zonako tarifen konparazioaren ondorioak aitatu geinkez, egungo tarifa-sistemaren gabeziak aurkezten dauzalako, eta horretan jardun beharko geunke intermodalidadea hobetzeko eta sistema bidezkoagoa eta orekatuagoa izateko.

2.- Oinarri estrategikoetan (bi orritan bakarrik laburbiltzen dira) Bizkaiak eredu eraginkorrago eta jasangarriago baterantza aurrera egiteko erronka daukala aitutzen da, egungo zerbitzu-kalidadea eta estaldura-mailak alde batera itxi barik. Eta horretarako, 6 ardatz estrategiko aurkezten dozuez:

1. Sozialki garraio arduratsua.
2. Ekonomikoki bideragarria.
3. Igurumenagaz konprometiduta eta segurua.
4. Kalidadezkoa eta erabiltzaileei zuzenduta.
5. Integraua.
6. Teknologikoki aurreratua.

Gutziz ados 6 ardatzakaz, baina izentetea nahiko erraza da. Ardatz estrategiko horreek bete daitezkan zer jarduera abiarazoko dozuzkan esan beharko deuskuzu.

Hirugarren atalari jagokonez, eragin handiena dauka eta Proiektu Traktoreak jasoten dauz, izaeraren, magnitudearen eta inpaktuaren arabera haztatzen diran erispideakaz, proiektu bakotzak 6 ardatz estrategikoakaz daukan lotura balorauko dauen azken puntuazinoa lortzeko.

Bat etorri geintekoz, edo ez, proiektu gehienakaz, baina argi dago azken emaitza plangintza integrala egiteko proposamena dana, eta horrek modu jasangarriagoak eta lehentasunezkoak handiagotzeko eta bikoizkotasunak txikiagotzeko aukera emongo dau.

Eta atal horretan, lerroen arteko bikoiztasunen atalean, hatan be, astrapala arean sortu da, dokumentuari aurkezten deusazuzkan bi helbururen ondorioz:

- Goi mailakotzat jotzen diran bikoiztasunak berrantolatzea, batez be Ezkerraldean. Bertan bi linea kentzea eta maiztasunak beste 5 lineatan berrantolatzea edo aldatzea proponiduten dozue.

- Eta Bilbon, Bizkaibuseko abiaburuak berrantolatzea.

Horrek zeozelako ezinegona sortu dau erabiltzaileen, emakidadunen plantillen eta berrantolaketa horreen eraginpean dagozan udalen artean be.

Zelan konponduko dozu hori, Viar jauna? Gure eretxian, eztabaidagaz, parte-hartzeagaz eta gardentasunagaz egin behar da. Horregaitik, honakoa galdetzen deusgu:

ba al daukazu Plan estrategikoaren txostena hedatzeko planen bat? Ba al daukazu enpresa emakidadunei, bertako langileei eta udalei aurkezteko asmorik? Txartel Bakarrarena bezalako plataformak dagoz, plan estrategikoaren txosten horren azterketan modu aktiboan parte hartzea eskatu dabenak.

Izan be, Tarifa-sistemari jagokon hurrengo atalean, tarifa-eredu integratzaile lez eta ez-diskriminatzaile lez aitatzen danean, sistema aldatzeko neurri nagusiak jasoten dira: zonaldeak murriztea, lurralde-oreka, tarifak bardintzea eta operadore guztiak sistema horri atxikitzea. Eta horretan dago ardaztuta Txartel Bakarraren eztabaida.

Eta horretarako zonifikazioan eragiteko 3 neurri zehazten dira:

- Transbordoak kentzea.
- Sistema homogeneizatea, zonaldeak murriztea, tarifak bardintzea, operadoreak atxikitzea.
- Eta “capping” edo eguneko gehieneko tarifa, baina astekoa edo hilekoa be izan leitekena, beharbada logikoagoa izango litzateke.

Lehen esan deusudan gauza bera. Aztertu daigun, eztabaidatu daigun, ezarri daiguzan lehenetsunak, ados egon geintekoz proposamenean espirtuagaz, baina zehaztu egin behar dira, eta edukiagaz eta aurrekontuagaz hornidu, jakina. Izan be, txostenean jasoten dan moduan, jarduketa horreek hasieran sortzen daben eragin ekonomikoa ez dau emoten zentzunbakoa danik; arabere gehiago, nire ustez, onartzeko modukoa be bada.

Eta, azkenik, 5. atala, Gobernu Eredua. Atal horrek, besteak beste, gobernantza-sistema barri bat sortzea jasoten dau eta sistema horren helburua erabateko integrazinoa da 4 oinarriren arabera: integrazino administratiboa, tarifen integrazinoa, modala eta teknologikoa.

Horretarako, formula juridiko zehatz bat proponiduten da: erakunde bat sortzea, egungo Bizkaiko Garraio Partzuergoa birmoldatuta eta berori indartuta. Gainera, harreman juridikoen eskema bat jasoten da, eta kontuan hartzen dau zer eragin izan ahal dauen Bizkaiko garraio publikoaren sektorean lan egiten daben personakan.

Azkenik, Planak berak ibilbide-orriko jarduketetarako egutegia eta lehenetsunen metodologia jasoten dauz, eta honako honeek lotzen dauz: eragin estrategikoa eta larrialdia, kostua eta konplejutasuna, eta ezarteko lehenetsuna eta erraztasuna.

Gómez Viar jauna, betebeharrak daukazuz, hainbat betebehar. Zure Saila erronka baten aurrean dagoala iruditzen jaku, erronka izugarri handia: Bizkaiko garraio publikoaren sistema diseinetea, gitxienez hurrengo 10 urteetarako.

Señor Gómez Viar, se encuentra ante un reto, pero un reto hermoso, emocionante, de esos que no se pueden abandonar. Diseñar el transporte público de Bizkaia para los próximos 10 años. Un transporte público viable, más justo, más seguro y comprometido con el medioambiente. Un transporte público de calidad, dirigido a las personas usuarias, más integral y tecnológicamente avanzado.

Y EH Bildu está dispuesto a colaborar, a aportar y a participar activamente. Y creo, tal y como he podido comprobar, que por lo menos también los agentes sociales tienen interés en las propuestas que recoge el plan.

No pierda esta oportunidad, no lo demore más, trabaje en ello. Esa es la

propuesta que le hacemos desde EH Bildu, y entiendo que es muy clara y concreta. Pero ahora es su turno. Ahora le corresponde a usted decirnos qué pasos dará y, para ello, le recordaré las preguntas que hemos reflejado en la interpelación:

- ¿Qué intenciones tiene la Diputación Foral de Bizkaia para analizar y poner en marcha este plan estratégico?
- ¿Van a proponer un espacio o formato para debatir, analizar y priorizar las actuaciones a realizar?
- ¿Promoverán ustedes la participación de todos los grupos políticos en el análisis, priorización y puesta en marcha de los objetivos? ¿Y de otros agentes sociales afectados?
- El Plan no contiene ninguna referencia a la situación de pandemia generada por la Covid-19. ¿Tienen alguna previsión de actualizar el plan en relación con esta situación?

Señor Gómez Viar, le solicitaré antes de su discurso que no hable del pasado, no utilice ningún pretexto, no se centre en cómo hemos llegado hasta aquí. Háblenos del futuro, qué tipo de planes e ideas tiene y cómo las va a ejecutar. Eso es, al menos, lo que espero con esta interpelación. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia, Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Gómez Viar, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Mahaiburu andrea, ahaldunak, buenos días a todos y a todas.

Tira, Méndez jauna, itaun bat prestetan dodan baktotxean, normalean alde zurretik beste zeozer esaten deustazu, eta ez nekian oraingo arazoa azterlana entregatu izana danik, diapositiba batzuk jarri izana zantik. Ikusten dodan moduan, azterlanaren 5 puntuak ezin hobeto zerrendatu deuskuzuz, eta eskertzen deutsut. Tira, baina normalean egiten dodan moduan, saiatuko naz erantzuten gaur egiten zeunstan itaunari, gaur egiten zeunstanari. Bide batez, interesa daukien eta diputaduek berba egin gura daben gizarte eragileak ez dago ezelako arazorik. Bakarra zuzendu jako diputadu honi: Txartel Bakarrak. Eta, dakizun moduan, behin baino gehiagotan batzartu naz eurekazu eta, hain zuzen be, atzo eurretako kide batek berba egiten aritu nintzan, nik uste dot ordu erdiz.

Baina, tira, itandu deustazun horri erreparatu, zera esango deutsut, tira, dinostazun lehenengo gauza da zer asmo daukazan Bizkaiko Foru Aldundiak plan estrategiko hori aztertu eta abiarazoteko. Joan dan martiaren 19ko Batzordean esan neutsuen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzaren azken bileran (bertan Eusko Jaurlaritzagaz eta Bilboko Udalagaz batera parte gara), lantalde bat sortzea proponidu eban jasotako azterlana aztertzeke eta hausnartzeke eta, lan hori egin ostean, Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzari berari proponiduteke eta ondorioak azaltzeke.

Bertan egozan eta bertan ordezkari eukien erakundeek aho batez onartu eben lantalde hori sortzea. Horren haritik, gogoratuko dozu nire agerraldian nabarmendu neutsula azterketa-dokumentuak balio handia daukala Bizkaiko garraio publikoaren azterketara hurbiltzeke aukerari jagokonez, bai eta abiapuntuaren diagnostikoari jagokonez be, baina orduan eta beste nozonoz be aitatu neutsuen ezin doguzala faktore garrantzitsu batzuk

ahaztu. Lehenik eta bat, emondako dokumentua egin zan unean egindako argazki finko bati jagoko, eta, jakina, une hori aldatzen joan da. Joan dan urte t'erdian Covid sartu izana baino ez dogu ikusi behar.

Bestalde, esaten neutsuen moduan, gure errealidade guztia hainbat errazoigaitik aldatu egin da, Covid dalakoagaitik, esaterako, eta zuk zuzen adierazoten zenduan egiten zeunstan itaunaren azken galderan. Jakina, horrek eragin handia izan dau gure herritarren mobikortasunean eta, beraz, garraio publikoan, eta azterketa horretan aztertu eta txertatu behar da.

Eta, hirugarrenik, nire ustez, berebiziko garrantzia daukan kontu bat, dokumentu honek, diagnostikoaren azterketaz gain, ekarpen, iradokizun eta proposamen batzuk ezarten dituala, hatan be. Horreek, jakina, azterlan hori egin dabenen adierazpenak dira, baina ez dira Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza osotzen dogun erakundeon ondorioak, hondino zehaztu barik dagozalako; izan be, orain dokumentu hori sakon aztertzeko eta, are garrantzitsuagoa dana, batez be gizarte eraginkortasunean arreta jarriko dauen azterketa bermatzeko zeregina daukagu, eraginkortasun ekonomikoa ahaztu barik. Izan be, gizarte eraginkortasun horregaz, nire ustez, talde guztiok gagoz konprometiduta. Eta horretan ari gara orain.

Zure bigarren galderari jagokonez: “eztabaidatzeko, aztertzeko eta egin beharreko jardueri lehenesteko gune edo formatu bat proponiduko dozue?”. Foru Gobernu lez jagokun moduan, erakundeetako ordezkari lez, esan deusut Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzan lantalde hori sortzea proponidu dogula. Azterlana irakurten eta aztertzen joango gara, geure ondorioak garatu daiguzan. Izan be, barriro dinotsut dokumentuaren ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak ez dirala Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza osotzen dogun erakundeon ondorioak, hondinokoarren gaur-gaurkoz zehaztu barik dagozalako. Eta ez eizu zalantzarik euki, esan deusudan moduan, gizarte eraginkortasunaren parametroetatik abiautako azterketa bermatzeko helburuagaz egingo dogulako, eta, nire ustez, horretan danok gagoz konprometiduta. Eta, jakina, aitatu dozun Covid faktorea eta berorrek mobikortasunean daukan eragina be erantsita, eta danok gatoz bat horretan.

Azken gaiari jagokonez, Covid-aren osteko errealidade barri hori sartzeaz berba egin dogun ezkerro, zera galdetzen deustazue, ea talde politiko guztien eta eragindako beste gizarte-eragile batzuen parte-hartzea be sustatuko dogun helburuak aztertzen, lehenesten eta abiarazoten.

Dakizuen moduan, joan dan martiaren 29an kopia bat emon neutsuen ganberako kide zarien talde politiko guztioi, irakurri eta zehetasunez aztertu zengien, ez une haretan bertan, baina tira, 469 orrialde daukazan dokumentu batek eskatzen dauen denporagaz eta dedikazioagaz. Eta esan neutsuen uste nebala, eta horrelan uste dot hondino be, hemen gagozan guztiok, eta, beraz, gure talde politikook bat gatozala Bizkaian lurralde- eta gizarte-kohesino eraginkorra ahalbidetuko dauen garraio publikoa izateagaz, eta, azterlanak dinoan moduan, kalidadezkoa, segurua, jasangarria eta eskuragarria izan behar dauela, eta eskura dagozan baliabideak optimizau eta bikoiztasunak saihestu behar doguzala. Askotan esan deusuet prest nagoala gura dozuezan beste gai azaltzeko, bai eta zuon gogoetak entzuteko eta jasoteko be.

Jakina, ez jagot ez niri, ez Gobernuari, batzarkide taldeek Batzar Nagusietan zehaztu leikiezan mekanismoak aurrefinkatzea. Garraio eta Mugikortasun Iraunkorrekotako diputadua eta erakundearen arduraduna nazan aldetik, Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza osotzen dogun garraio-gaietan eskumena daukagun erakundeok dokumentu hori alkarregaz aztertzeko mekanismo bat proponidu eta eratu behar neban, eta holantxe egin da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez Viar. En el turno de réplicas, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas de nuevo, y muchas gracias especialmente al diputado Gómez Viar por las explicaciones que ha facilitado.

Señor Gómez Viar, en mi primera intervención le he solicitado que hablara acerca del futuro, de los planes de su Departamento, qué pasos van a dar ustedes, pero o no le he entendido muy bien, o no lo he visto muy convencido. Creo que le falta ilusión, que le falta entusiasmo, le veo algo derrotado, como si no tuviera ganas de seguir adelante o, al menos, no ha mostrado nada.

Quizás tenga oportunidad de hacerlo en el segundo turno y veremos desde otra perspectiva, pero, además, lo digo por animarlos, por ponerle unos retos, creo que he venido a esta Cámara con ganas de trabajar de forma conjunta. Pero, bueno, espero de su parte un cambio de actitud que, como he dicho antes, sirva para seguir adelante y que deberá esforzarse, que deberemos esforzarnos en diseñar el transporte público de Bizkaia para los próximos 10 años.

Esan deutsut Plan Estrategikoan agertzen diran proposamen askoren inguruan eretxi bera euki geinkela, baina euretako gehienak, nire ustez, ez dira proposamen barriak; luzaroan airean egon diran proposamenak dira. Adibide bat ipiniko deutsut: 2008an Auzo Elkarteen Federazioak argitaratu eban Bilboko eta inguruko garraio publikoari buruzko Liburu Zuriak orain dala 13 urte jaso ebazan plan horretan agertzen diran hainbat gauza.

Iraganaz ez dodala berba egin gura esan deutsut, etorkizunaz egin gura dodala berba esan deutsut, baina interesgarria litzateke dokumentu hori errepassetea be, benetan personek egin ebelako, eta horretan dedikazino handiz eta bihotz onez, barriz.

Zeozar, zeozar ulertu deutsut, Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzan lantalde bat proponiduko dozula, hatan be. Baietz ulertzen dot, orain dala gitxi txio baten argitaratu zenduala, baina atzo ezin izan neban zure kontuan aurkitu, eta lantalde hori Garraio Partzuergoaren barruan bideratzen zenduan, Bizkaiko garraio publikoaren egoera hobetzen jarraitzeko helburuagaz, eta hori argitzea gustauko litxakigu. Txioa egon badago, ez eizu buruagaz ezetzik esan; ezipabere, gero erakutsi deikezut. Foro hori Garraio Partzuergoan edo Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzan egingo dan argitzea gustauko litxakigu, uste dodalako batean eta bestean desbardin egin leitekela aurrera eta parte hartzen daben eragileak be desbardinak dirala.

Txio horretan be aitatzen zenduan, eta lehen esan deutsudazan lerro horreekaz lasaitzen zenduzan erabiltzaile guztiak, baina gustauko litxakit..., zu horretara mugatu zara; hara, talde bakotxak jakingo dogu, jakina, zer egin beharko dogun, eta hemendik badakizu mozino bat atera leitekela, mozino bat liderau leitekela. Izan be, hilaren 29an be planteau neutsun ekimena zeuk ez bazenduan hartzen, gure taldea prest egoala Batzar Nagusi honeetan lantalde bat sortu daitela eskatzeko, ez da isilean gorde deutsudan ezer, baina kezkatu egiten nau zure jarrerak. Izan be, proaktiboa izan zaitezke edo ez, eta emoten dau honakoa esatera mugatzen zarala: “tira, nik Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzara eroango dot, eta kitu”. Ondo, baina nik uste dot proaktibidadea izan behar dozula. Ulertzen dot, eta esan deutsut, ekonomia-, gizarte- eta enpresa-eragile batzuk edukiakaz kezkatuta dagozala eta parte hartu gura dabela, eta lekua egin beharko litxakie.

Beraz, nire galdera zera da, eta zuzenean galdetu deutsut eta ez deustazu

erantzun: zelan bermatuko dozu parte-hartze hori? Ea fororen bat sortuko dozun Batzar Nagusietako taldeok lan egin daigun eta eragile sozial, ekonomiko eta sindikal horreek ekarpenak egin dagiezan.

Gaur zer egin geinken planteau deuskuzu. Ba, itaunaren helburua, barriro dinot, ez da zuk esatea zer egin geinken. Itaunaren helburua da zuk esatea zure Sailak zer urrats emongo dauzan, eta lantalde hori sortzea kenduta, uste dot ekarpen txikia egin deuskuzula. Ondorio batzuen inguruan egin deuskuzu berba. Dokumentuaren ondorio horreetara zelan helduko garan jakitea gustauko litxakigu edo aitatu dozun gizarte-eraginkortasun horren azterketa zelan egingo dozuen.

Creo que ahora es el momento; además, nos quedan dos años por delante antes de que finalice esta legislatura. Parece mucho tiempo, pero para adoptar decisiones profundas, y que se aplicarán en un plazo medio, hace falta tiempo, hace falta debate, y creo que también resulta necesaria la participación. Yo le he dicho claramente: estamos dispuestos y dispuestas a trabajar de forma conjunta, estamos dispuestos y dispuestas a ser compañeros y compañeras de viaje. Puede aprovechar esta oportunidad o no. Está en sus manos. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Gómez Viar, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Buenos días de nuevo. Hara, Méndez jauna, ulertzen dot, ez dakit nondik ikusten nozun Garraioaren Plan Estrategikoagaz gogo barik. Ez dakit, beharbada txilinbuelbaka urten beharko dot hona, baina, tira, benetan dinotsut nahiko animauta, konprometiduta eta gogotsu nagoala, horrelan ikusi gura badozu, uste dot zu bestean edo gehiago. Hara, gauza bat esan gura neuskizu. Nik ez deusuet esaten zer egin behar dozuen, baina ez esan diputadu honi be zer egin behar dauen. Izan be, uste dot esaten deustazun hori, foro bat sortzea, hatan be, ez dala foru-diputaduaeren zeregina, foro bat sortzea eragile sozial, ekonomiko, sindikal eta abarregaz. Bide batez, barriro dinotsut eragile bakarra zuzendu jakola diputadu honi. Bat zuzendu jat, bat, beragaz egiten dot berba, eta barriro dinotsut atzo eurekaz berba gustura egin nebala, eta azalpen guztiak eskertu eustiezan. Hori, alde batetik.

Txio bat aitatu dozu. Tira, ez dakit akatsen bat egon dan; hau da, lan hori Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzaren barruan sortu da, ez Bizkaiko Garraio Partzuergoan. Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzaren barruan sortu da, Agintaritzza horretako kide bakotxeko jentiaz osotuta.

Tira, etorkizunean zer urrats emongo doguzan dinostazu, zer betebeharrak egin behar dogun. Hara, lehenengo eta bat, azterlan hori hartu beharko da, sakon aztertu eta ikusi hortik zer atera geinken, zer osotu behar dan, zerk balio deuskun eta zerk ez, eta zer aldaketa egon dan.

Jakina, ni hona etortea gura badozu datorren astean zer egingo dan esateko, ba, nire ustez, ez da gauza serioa, eta ez da horrelan. Azterketa horren inguruko hausnarketa egin beharko dogu eta balorau, eta Lurraldeagaz gura dogunagaz egokitu.

2008. urteko Liburu Zuria izan dozu berbabide. Tira, ez dodaz zalantzan jarten azterlan horreen guztien balioa eta asmo onak, baina, hara, daukaguna aprobetxatu beharko dogu, nire ustez, garrantzitsua dan azterlana, mamitsua, 460 orrialde daukazana, ondorioak aterateko eta Bizkaiko lurraldearen garraioan islatzen saiatzeko. Ba, zure esanetara

eta dagozan eragile ekonomiko, sozial, sindikal eta mota guztietako eragile guztien esanetara gagoz, eta azterketa horretan eta horren osteko inplementazioan lanean jarraituko dogu, ahal dan neurrian, azterlan horretan, eta horretan beti izan nozue zuon esanetara, eta erabat gogotsu, gogoagaz eta adoretzu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez Viar. Y el punto quinto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001526](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Las propuestas fiscales planteadas por el Fondo Monetario Internacional y las modificaciones fiscales en las que está trabajando la Diputación Foral de Bizkaia

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001526](#))

Expediente: ([11/B/18/0002299](#))

5.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001526SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Nazioarteko Diru Funtza erakundeak plazaraturiko zergen inguruko proposamenak eta Bizkaiko Foru Aldundia lantzen ari den zerga-aldaketak

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001526SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0002299](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días de nuevo.

A fin de ayudar a atender las necesidades de financiamiento relacionadas con la pandemia, las autoridades podrían considerar una contribución temporal a la recuperación tras la Covid-19, impuesta a los ingresos o patrimonios elevados.

Pandemiagaz lotutako finantzaketa-beharrei erantzuten laguntzeko, agintariiek diru-sarrera edo ondare handiei aldi baterako ekarpena ezartea aztertu leie, Covid-19aren osteko berreskurapenerako ekarpen moduan.

No es una propuesta de EH Bildu, no. Es una recomendación realizada por el Fondo Monetario Internacional, en el informe Monitor Fiscal, publicado a comienzos de mes.

Tiene un claro objetivo: ayudar a atender las necesidades de financiación relacionadas con la pandemia.

Necesitamos más ingresos, puesto que la pandemia ha sacado a la luz nuevas necesidades sociales. La Diputación Foral de Bizkaia, y las organizaciones vascas, en general, se han ocupado de la deuda. Pero eso no es suficiente; al final habrá que pagar la

deuda. Y también tendremos que responder a las nuevas necesidades. Y, por tanto, debemos trabajar en cómo conseguir más ingresos, necesariamente.

En esa propuesta también resulta evidente a quién se le asignará esa aportación: a quienes tengan grandes ingresos o patrimonios, no a todos, sino a los que más tengan.

Y será una aportación transitoria. Sí, se trata de una propuesta en la misma línea de la que EH Bildu presentó en esta Cámara. Pero es una propuesta que se va extendiendo cada vez en más pueblos. Y el Fondo Monetario Internacional ha planteado más propuestas.

Su punto de partida es el siguiente:

“Las grandes desigualdades persistentes han empeorado el efecto de la pandemia de Covid-19, mientras que la crisis, a su vez, ha intensificado esas desigualdades”.

Desbardintasun iraunkor handiek Covid-19 pandemiaren eragina okertu dabe, eta krisiak, aldi berean, areagotu egin ditu desbardintasun horreek. Horixe da Nazioarteko Diru Funtsaren abiapuntua.

Eta zera gaineratzen dau: “politika ekonomikoko erantzunak alkar indartzen daben eta gurgil zoro bat sortzen daben desbardintasunaren alderdi desbardinak (diru-sarrera, aberastasuna, aukerak) autortu behar dabez”.

En este sentido, detalla los elementos que deben incluir las respuestas de política económica, siendo uno de ellos “reunir los ingresos necesarios”, y la propuesta que hace es la siguiente:

Las economías avanzadas pueden incrementar la progresividad de la tributación del ingreso y aumentar el recurso a impuestos sobre sucesiones / donaciones y la tributación inmobiliaria.

Y añaden:

También pueden considerarse contribuciones para la recuperación de la COVID-19 e impuestos sobre beneficios empresariales “excesivos”.

Pueden plantearse también impuestos sobre el patrimonio si las medidas anteriores no son suficientes.

Las economías de mercados emergentes y en desarrollo deben centrarse en fortalecer la capacidad tributaria para financiar más gasto social.

Behin eta barrero errepetiduten dan idea da COVID-19ren ondorioei aurre egiteko diru-sarrerak handitu behar doguzala, eta horretarako fiskalitatean aldaketak egin behar dira. Idea hori gero eta herrialde gehiagotara zabaltzen ari da. Ez da kasualidadea Nazioarteko Diru Funtsak orain proposamen hori egin izana.

Erresuma Batuan, joan dan abenduan, Ondarearen gaineko Zerga ezarteko txostena aurkeztu eben, eta 2023an Soziedadeen gaineko Zerga %25era igotea proponidu dabe.

Danimarkan, aberastasun handiei eta bankuei zerga bat ezarteko asmoa daukie.

Argentinan, urtarrilean, ezohiko zerga bat abiarazo dabe aberastasun handientzat.

Eta azken proposamena Joe Bidenena izan da: Soziedadeen Gaineko Zerga igotea euren herrialdetik kanpo lan egiten daberen enpresei, eta %28ko gitxieneko zerga orokorra abiarazotea, multinazionalek paradisu fiskaletara jo ez dagien.

Parece que las propuestas para incrementar los ingresos no solo vienen de las fuerzas de la izquierda. Es una postura generalizada que necesitamos propuestas para aumentar los ingresos. De no ser así, no podremos hacer frente a las consecuencias de la pandemia.

Por eso, formulamos al señor diputado de Hacienda y Finanzas:

¿Cuál es la valoración que hace la Diputación Foral de Bizkaia de las propuestas fiscales formuladas por el Fondo Monetario Internacional?

Aquí existen dos ámbitos. Por una parte, la contribución temporal a imponer a los grandes ingresos o patrimonios y, por otra parte, las referentes a las modificaciones que se pueden plantear de forma más general en los diferentes impuestos.

No hemos obviado en esta interpelación que la Diputación Foral de Bizkaia está trabajando en la propuesta para la alineación de nuestro sistema fiscal con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, con la ayuda de Marina Mazzucato.

El pasado mes de noviembre se llevó a cabo la consulta pública al respecto, y en el documento difundido se concretaban tres ámbitos estratégicos para Bizkaia: el reto demográfico, el cambio climático y la actividad económica.

Para la Diputación Foral de Bizkaia, estos tres ámbitos están relacionados con los 9 Objetivos de Desarrollo Sostenible, entre los que se encuentran la salud, la igualdad de género, la energía no contaminante, el empleo digno, la industria, etc.

Pero no incluye estos tres:

1. La desaparición de la pobreza.
2. Que no haya hambre.
3. Y el objetivo 10, la reducción de desigualdades.

Y, de verdad, no lo entendemos, puesto que uno de los objetivos del sistema fiscal es el reparto de la riqueza, reduciendo así las desigualdades y luchando contra la pobreza.

Lehen adierazo dodan moduan, Nazioarteko Diru Funtza erakundearen abiapuntua da desbardintasunak areagotu egin dirala, eta kontua da Bizkaiko Aldundiak, Garapen Jasangarrirako Helburuakaz bat etorteko zerga-proposamen horretan ez dauela sartuko pobrezia edo gosearen aurkako burruka. Ulertezina erexten deusagu. Baina garaiz gagoz, helburu horreek sartu leitekez hondino ezagutzen ez doguzan zerga-aldaketen proposamenetan.

Y esa es la pregunta que le formulamos al señor diputado de Hacienda y Finanzas: ¿Estarán entre los objetivos de las modificaciones fiscales que se propondrán “la reducción de las desigualdades” o “hacer frente a la pobreza”?

Y, por último, le preguntamos al señor diputado si en las modificaciones fiscales en las que están trabajando se prevé el aumento de los ingresos. Todos y todas somos conscientes de que la crisis múltiple generada por la COVID-19 ha sacado a la luz nuevas necesidades sociales: hay que invertir más en servicios públicos, para ayudar a las personas y sectores en situaciones más urgentes, para conceder ayudas económicas directas, hace falta disponer de más dinero.

De momento, desconocemos las medidas fiscales que se propondrán, pero hay dos formas de incidir en esos tres sectores y de alinear con los Objetivos de Desarrollo Sostenible:

- Una forma es concediendo incentivos fiscales a quienes tienen buenas conductas. Si tomamos esta vía, Hacienda obtendrá menos dinero.

- Otra forma es aumentar los impuestos a quienes no tienen buenas conductas. En este caso, tendríamos la opción de obtener más dinero.

Seguramente, tendremos que tomar las dos opciones juntas, pero, en todo caso, creo que debemos tener presente lo que el propio Fondo Monetario Internacional plantea:

“Las economías de mercado en crecimiento y desarrollo deben centrarse en reforzar la capacidad fiscal para financiar más gastos sociales”. Tenemos que prestar atención a lo que tenemos y a hacer más gasto social a través de los impuestos. Es decir, tenemos más necesidades sociales y necesitamos más dinero para dar respuestas adecuadas. Y este debe ser, sin duda, uno de los objetivos de las medidas fiscales que se van a plantear. No será el único, pero uno de los objetivos debe ser disponer de más ingresos, para poder dar una respuesta adecuada a las nuevas necesidades sociales. Espero su respuesta. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos y a todas.

Ba, beste behin, orain, Nazioarteko Diru Funtza erakundearen txostenak dirala-ta, itauna egiten dauen taldeak barrero errepetiduten dau ganbera honetan aurkezten dan gai hori, eta hainbat modutan errepetidu da azken hilabeteotan. Izan be, Batzar Nagusi honeen urriaren 5eko Osoko Bilkuran, lurraldeko zerga-politikari buruzko ebazpen-proposamena eztabaidatu zan Osoko Bilkuran, gure ustez, indarrean jarraitzen dau bete-betean Batzar honeek onartu eben ebazpen-proposamenak, Nazioarteko Diru Funttsaren eretxia gorabehera. Baina, jakina, gu Bizkaiko Batzar Nagusietan gagoz.

Eta ebazpen haretan Batzar honeek Aldundiari adierazoten eutsien, eskatzen euskuen gainerako erakunde eskudunakaz batera, Autonomia Erkidegoan ezarritako organo eskudunetan, 2014an eta 2015ean egin genduan zerga-erreformaren emaitzak berrikusteko prozesu bat garatzeko eta amaitzeko, eta honakoa inoan: “adierazleak egonkortzen diranean eta hausnarketaren helburuetarako ondorio baliagarriak lortzea ahalbidetzen dabenean”. Gainera, Mazzucato andregaz, University College of Londonegaz egiten ari ginan lankidetzeta-lana amaitzera animatzen ginduezan, garapen jasangarriaren helburuak lortzera bideratutako zerga-eredua, NBEko 17 helburu horreek, hatan be.

Eta, hemen interesetan jakunerako, Batzar Nagusiek be konbidau ginduezan beharrezkotzat, erabilgarritzat eta egokitzat jotzen diran arauak aldatzeko proposamenak egin gengizan, aitatu doguzan azterketen eta prozesuen emaitzak izan ahala, garapen ekonomiko jasagarria, adimenduna eta integratzailea bermatzeko eta Bizkairako danok gura dogun etorkizunerantza aurrera egiteko.

Unada honetan jasaten ari garan pandemia hasierako aurreikuspenek pentsuarazo ahal euskuen baino askoz be gehiago irauten ari da, eta, horregaitik, gatxa da aurreikuspenak egitea hain ezohiko egoera baten aurrean. Pandemia horren guztiaren ondorioz, nazinoarteko foroek izan leien eretxiak alde batera itxita, pandemia hasi zantetik, Bizkaiko Foru Aldundian jasaten ari garan pandemia honen une baktotxean, beharrezkotzat jo doguz, neurri batzuk hartu doguz, lehenengo eta behin osasun-agintariak herritarren osasuna zaintzeko hartu ebezan euste-neurrien ondoriozko egoerara egokitzeko preminei erantzuteko, bai eta bizi dogun egoeraren aurrean likidezia eta beharrezko aukerak errazteko be, batez be ahulenei. Gehienbat, autonomoz, mikro-enpresez eta enpresa txikiez ari gara, eta horretara jardun dau Aldundiak jasaten ari garan pandemia-urte honetan.

Zerga-eskumenen esparruan, ba, hasiera baten, salbuesenezko neurriak hartu ziran, osasun-larrialdia eragiten ari zan inpaktu ekonomiko negatibo hori konpontzeko. Izan be, hondinokoarren be eragiten ari da inpaktu negatibo hori, eta, batez be, personakan eta zergadunakan. Eta bigarren une baten, zalantza barik, lehentasunezkoa izan zan susperraldi ekonomikoaren prozesua ahalik eta arinen eta intensidaderik handienagaz emongo zala bermatzeko beharrezkoak ziran neurriak aztertzea eta hartzea.

Egoera horri heltzeko Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Aurrera! proiektua onartu eban. Izan be, proiektu horrek zuzeneko aktibazio-neurriak jasoten ebazan Aldundiaren eskumenen esparruan, zerga-neurri batzuk be bai, geroago luzatu egin diranak. Nazioarteko Diru Funtsa erakundearen terminoetan ari gara zerga-neurriez; zerga-neurriez ari diranean diru-sarreretakoko eta gastuetarako neurri fiskalak dira.

Horri jagokonez, Nazioarteko Diru Funtsa zer dan aitatu dozu. Horri jagokonez, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak berori osotzen daben estadu kide guztiei aholkatu deutse ekonomia suspertzeko eta ekoizpen-sareari ahalik eta kalte gitxien eragiteko neurri erabagigarriak hartu dagiezala, hau da, pandemiaren aurrean osasun-erantzun egokia bermatzeko beharrezkoak ziran konfinamentu-neurrien eta isolamentu sozialaren ondorioz sortu ziran kalteak. Eta horixe da Bizkaiko Foru Aldunditik egin doguna, edo behintzat egiten saiatu garana, eta egungo egoeran egiten jarraitu gura doguna. Beharrezkoak diran neurri koiunturalak hartu gura doguz, pandemiaren osasun-egoeraren eta ondorio ekonomikoen bilakaera kontuan hartuta.

Nazioarteko Diru Funtsaren proposamenei jagokenez, uste dot urte honetako apirilaren lekoa dan Zerga Monitoreak jasotako proposamenak dirala, eta nazinoarteko beste erakunde batzuek proponiduten dabezan beste neurri batzukaz jazoten dan moduan, kontuan hartu behar da erakunde horreek erakunde horretako kide diran herrialde guztietarako neurriak formuletan dabezala. Eta herrialde horretako baktotxaren egoera (ekonomikoa, soziala, lanekoa, hezkuntzakoa eta abar izan daiteke) ez da bardina, guztiz desbardina da, eta, halanda ze, euretako baktotxaren zerga-araubideak sano desbardinak dira.

Beraz, neurri orokor horreek ezarterakoan, ez da gauza bera esatea ekonomia aurreratua daukien herrialdeak, garapen bidean dagozan herrialdeak, garapen ekonomiko txikia daukien herrialdeak. Halanda ze, zerga-sistema horreek, neurrien arabera, egokitu egin behar dira, eta hori da, gure ustez, gure ikuspegitik aztertzen doguzanean kontuan hartu behar dana, gure kasuaren baldintza berezietara egokitu behar dirala, eta aplikazino-intensidadea ekonomia baktotxaren egoera zehatzaren araberakoa izango da.

Ondarearen gaineko Zerga ezarriko daben Europako hainbat herrialde aitatu dozuz. Guk Ondarearen gaineko Zerga daukagu. %25 jarri gura dauen Europako herrialderen baten inguruan egin dozu berba. Guk %25eko Soziedadeen gaineko Zerga daukagu. Beraz, ondo dago Nazioarteko Diru Funtsak neurri horreek orokorrean esatea, baina gero egia da egoera zehatz bakoxtera egokitu behar dirana.

Gure kasuan, NDFk orokorrean egiten dauzan proposamen horreek eta beste erakunde batzuek mahai gainean ipinten dabezan beste proposamen batzuk be Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuek aztertzen dabez, jarduera ekonomikoa berraktibetako eta gure ondoizate-egoerari eusteko prozesurako baliagarriak izan ahal badira gure zerga-sistemaren printzipioetan eta egituran sartzeko behar diran egokitzapenakaz inplementau ahal izan daitezkan. Era berean, adierazoten deusut gure inguruko herrialdeetako beste zerga-administrazio batzuek hartzen dabezan zerga-neurriak azertu egiten doguzala, gehienetan, gure zerga-proposamenetarako benchmarking lez balio izaten dabelako.

NBEk 2030 Agendan onartu ebazan 17 GJHei jagokenez, ba, Nazioarteko Diru Funtsak egiten dauzan proposamenakaz gertatzen danaren antzeko zeozer gertatzen da. GJH bakoxtak bere tokia eukiko dau herrialde baten, horreek ezartea erabagiten dauen moduaren eta herrialde bakoxtaren, edo erakunde bakoxtaren, administrazio bakoxtaren, ingurune bakoxtaren edo lurralde bakoxtaren beharren arabera. Ez da gauza bera behintzat, edo ez da intensidade bera ezarri behar Garapen Jasangarrirako desbardintasuna murriztearen helburua bultzatzeko orduan Europako ekonomian edo Afrikakoan, Asiakoan edo Hego Amerikakoan. Horregaitik, zerga-sistema baten aplikatu beharreko GJHak zeintzuk diran zehazterakoan, kasu honetan gure lurraldeak daukazan GJH lehentasunezkoetan edo preminazkoenetan jarri behar da arreta.

Bizkaiko sistema GJHakaz bat etorteko lantzen ari garan zerga-sistemaren eraldaketari jagokenez, ondo dakizuen moduan, proiektu horretan lanean ari gara, ez dago amaituta, eta, une honetan, Batzar Nagusi honeetara ekarteko ondorioak eta proposamenak daukaguzan unean, ba, horrelan egingo dogu. Bien bitartean, barriro dinot Bizkaiko Foru Aldundian Batzar Nagusi honeetatik jaso doguzan aginduak beteten ari garala erabagiak hartzeko, arrapaladan ibili barik eta behar dan moduan hausnartuta, baina pandemiaren hasieratik erakutsi dogun erresilientziagaz eta lurraldeagazko konpromisoagaz be bai, parte hartzen dogun nazioarteko erakundeen aholkuakaz bat etorritz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarizaga Artaraz. Y en el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo.

Beharbada gauza baten ados egongo naz zugaz: honek frontoiaren itxura daukala. Izan be, egia da guk behin baino gehiagotan adierazo dogun gaia dana, baina egia be bada, era berean, guk hori adierazo eta zuk beti gauza bera erantzuten deustazuna. Baina kontua da egoera aldatu egin dala, eta horixe esan gura izan dot, sasoi baten EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak, modu baten edo beste baten, adierazoten eben proposamena zala emoten eban hori, tira, ba oso orokortuta dagoan zeozer dala, diru-sarrera gehiago izan behar doguzala pandemia honek azaldu dauzan premina sozial handiak konpontzeko eta horreei erantzun ahal izateko, hatan be.

Eta, beraz, begiak itxi geinkez, eta Aldundiak egin dauen guztia kontau ahal deustazu, eta ondo, hori badakigu. Baina nik aurrera begiratu daigula gura dot, aurrera

begiratu daigula; izan be, alde batetik, Aldundiak egin dauena beharrezko eta preminazko neurriak ziran, nahi-ta batzukaz bat gatozan eta beste batzukaz ez, baina beharrezkoak ziran, guztiak, eta azken Osoko Bilkuran neurri horreek diru-sarrerak murriztea ekarri dabela esan neban, eta diru-sarrera gehiago behar doguzala. Eta zorra ez da nahikoa, zorra ordaindu egin behar dogulako. Beraz, aurrera begiratu behar dogu, zorra ordaintzeko eta behar barriei aurre egiteko diru gehiago ea zelan lortzen dogun ikusteko.

Halanda ze, horretaz ez deustazu ezer erantzuten. Izan be, le he hecho una pregunta: ¿se plantea un incremento de ingresos con las nuevas propuestas fiscales que están planteando o están trabajando, alineadas a los ODS? Parece que ha comentado que aún no se dispone o no se ha finalizado el trabajo. Entiendo que ha afectado la Covid-19, pero si yo he formulado estas preguntas es porque en la página web de transparencia aparece que este debate tendrá lugar de abril a julio, y el mes de abril está ya finalizando. Entonces, pensaba que existiría ya algún borrador. Pero, en todo caso, creo que debe plantearse esa idea y me gustaría que me respondiera en el segundo turno si es que se prevén propuestas para incrementar los ingresos.

Por otra parte, usted plantea, bueno, que las recomendaciones que realiza el Fondo Monetario Internacional son generales y que hay que adaptarlas. Vale, sí, sí, sí. Claro que hay que adaptarlas, pero eso es en nuestro parlamento. Ha dicho que lo analizará, o que lo están analizando, pues yo espero que se analicen y se lleven a cabo, no solo las aportaciones concretas o cómo se ejecutarán, sino que, y con esa filosofía, cómo hacemos para conseguir más ingresos, y lo más lógico, si necesitamos más ingresos una de las medidas tiene que ser una aportación especial a quienes más tengan. ¿Cómo se llevará a cabo eso? Bueno, ya veremos, pero creo que se trata de una medida que hay que trabajarla y eso está unido a ese objetivo de reducir las desigualdades, objetivo que no han incluido ustedes. Porque ustedes dicen: “los objetivos hay que adaptarlos”. Vale, muy bien, pero para adaptar los objetivos hay que incluirlos, y de una forma u otra, aplicarlos. Han incluido la igualdad de género, claro, porque queda mal no incluirla cuando tenemos una Norma Foral de Igualdad, pero, en mi opinión, hay que incluir la reducción de desigualdades, y espero que se incluya.

Y luego, usted ha dicho que se han tomado todas las medidas para seguir las medidas económicas. Bueno, mi último libro es el de Mariana Mazzucato, porque ya le he dicho que lo seguiría de cerca, y es “El estado emprendedor”, y en el ámbito tributario en Bizkaia, que puede actuar como Estado, ¿qué dice Mariana Mazzucato?: “balio publikoa sortzea ezin da izan, beste barik, arazoak zuzentzea edo enpresek ixten dabezan hutsuneak betetea. Balio publikoa bere horretan helburu bihurtu leiteke eta helburu izan behar dau. Gizarte hobea eta ekonomia digitala sortzen laguntzen daben produktu eta zerbitzu zehatzak, itxura garbiago batetik; izan be, ekonomia digital horrek ez dauz datu pribaduak onura korporatibo bihurtuko, ezpada kalidade handiagoko zerbitzu publikoak sortzeko baliabide”. Creo, espero que esa idea se plantee con la propuesta que ustedes hacen. Seguramente no estaré de acuerdo con otras ideas, pero terminaré el libro, y veré qué es lo que se puede aprovechar de Mariana Mazzucato, porque muchas propuestas son aprovechables, y espero que ustedes también las adopten, no únicamente las que sean de su interés. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Urkaregi andrea, badakizu nik estimu berezia deustudana, eta, benetan, nork esango eustan EH Bilduk proponidutako zerga-politiketan Nazioarteko Diru Funtsan oinarrituko zinala. Neoliberalismo lotsabakoaren gorpuztea, Munduko Bankuagaz,

Erreserba Federalagaz, ELGEagaz batera, bat-batean zagoze..., ez dakit, zeozer aldatzen ari da, dinot nik, ez dakit. Beharbada, uste baino hurrago gagoz gai honeetan beste batzuetan baino. Egia esan, egoera honek bidelagun arraroak egiten dauz, eta batzuetan sortzen dana sortzen da.

Tira, zuk Nazioarteko Diru Funtsaren txosten horretako paragrafoak aitatu dozuz, Fiskal Notes horreetakoak, eta, jakina, nire ustez, adierazpenean onartzea interesetan ez ziran gauzak dinozuz; izan be, pandemia mundu osoan kontrolpean egon arte zerga-politikak malgua izaten jarraitu behar dauela dinozu, eta osasun-sistemei, etxebizitzetzi, enpresa bideragarrieti eta susperraldi ekonomikoari laguntza emon behar jakela. Ondo da, ea zelan ulertzen dogun. Babes fiskalak kontrakzino ekonomiko larriagoak eta enpleo-galera handiagoak saihestu dauz, baina babes horrek, diru-sarreraren beherakadagaz batera, defizit publikoak eta zor publikoa aurrekari bako mailetara igon dauz diru-sarreraren kategoria guztietako herrialdeetan.

Ikuspegi fiskalen inguruko ziurbakotasuna handia da, gitxitan lez. Gehienetan, pandemia zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta handiagoa izango da finantza publikoen erronka. Horreek guztiak, Nazioarteko Diru Funtsak egin dauen txosten horretan dagoz, eta testuinguru horretan, txertaketa-kanpainak aurrera egin ahala eta susperraldia sendotzen dan bitartean beharrezko laguntza emoten jarraitzea dira zerga-politikaren lehentasunak. Eta guztiz ados gagoz, ezin gehiago, Aldunditik, txertaketa eta pandemiaren aurkako burruka dirala lehentasuna, eta zerga-politikak txertaketa-kanpaina honek aurrera egin ahala eta berreskurapena egiten dan bitartean beharrezkoa dan laguntza emon behar dau. Hain zuzen be, hori egiten saiatu gara, ez dakigu zuzen edo ez, hori baktotxak bideratzen dauen moduaren arabera izango da. Eta horixe egiten jarraituko dogu.

Gero, jarraitu egin behar dala, diru-sarrera gehiagoren beharra. Batzar Nagusi honeek markau deuskue zer bide jarraitu behar dogun une honetan. Berrikuspenak aztertu behar doguz, beharrezkoak diran proposamen fiskalak egin. Horren haritik, tasak igoteak, Batzar Nagusietan eztabaidatu dan moduan, ez dau esan gura beti diru-sarrera handiagoak dauzanik, une horretan jasaten ari dan oinarriaren araberakoa izango da dana. Izan be, ikusten badogu, esaterako, zelan itxi dabezan 2020an burtsa izan leikien ondareak, beharbada galerak daukiez, eta ezohiko tasen igoerak ez dau diru-sarrerarik sortzen. Ez dot begiratu be egin, baina jazo leiteke. Beraz, zelan lortu diru gehiago? Zelan lortzen da zerga-bilketa handiagoa? Baleiteke une jakin baten puntuala izatea eta une horretan lortzea, baina hemen be arazoa epe ertainari erreparau behar jakola da. Zer jazoten da epe ertainean sortu geinkezan egoera horreekaz?

Eta GJHen gaia dala-ta, esan behar deusut Mariana Mazzucatoz egiten ari garan lanean, arau-proiektu horretan definituten diran 3 arlo estrategiko horreek, Mariana Mazzucatoren taldeagaz batera, 9 definitu dirala hasieran, eta gero 10 GJH. Eurek be dinoskue ezinezkoa dala GJH guztiei heltzea. Izan be, jakina, ekonomia baktotxak, zuk aitatu dozun gosea..., tira, hemengo gosez berba egitea, edo Kenyan dagoan gosez berba egitea, ba, ez da gauza bera. Halanda ze, gure ustez, inplementetako garrantzitsuenak diran GJHetan jarri behar da indarra eta ahalegina, eta hobetzeko, besteak beste, bardintasunarena. Izan be, ez da arau bat daukagulako, ezpada gure gizartean dagoan bardintasunetik ateraten dalako, eta horreek dira lantzen ari garan GJHak. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Y el sexto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001527](#))

Autor: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Asunto: Las incidencias que se están produciendo en la Campaña de la Renta y las medidas a poner en marcha para solventarlas.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001527](#))

Expediente: ([11/B/18/0002300](#))

6.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001527SE](#))

Egilea: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Gaia: Errentaren Kanpainan gertatzen ari diran gorabeherak eta horreek konpontzeko abian jarri beharreko neurriak

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001527SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0002300](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos y a todas.

Apirila heldu da eta bizkaitarrok, beste urte batzuetan lez, badakigu Errentaren aitorpena aurkeztu beharra daukaguna, eta, nire ustez, betebeharrak hori danok onartzen dogun betebeharra da. Eta, gainera, betebeharrak hori modu kontzientean eta norberak zer egiten dauen jakinda beteteko, herritar gehienok ez daukaguzan ezagutza fiskal eta legal batzuk behar dira. Eta, horrexegaitik, hain zuzen be, jarten dogu konfiantza osoa Foru Ogasunean, eta beste persona batzuek aholkularitzako profesionaletan jarriko dabe.

Elaborazio-prozesua gatxa da, eta, gainera, zergadunaren urduritasuna be eragiten dau. Egia esan, arlo horretako akatsen ondoriok ez jakuz, benetan be, merke urteten. Eta aurten, Errentaren kanpainak aldaketa handia izan dau aurkezteko moduan, eta agirikoa da ondoez handia sortzen ari dana, bai zergadunen artean eta bai arlo horretako aholkularitza-sektoreko behargin eta profesionalen artean be, bai eta Foru Ogasuneko langileen euren artean be.

Eredu barri batera edo aldaketa barrietara egokitu behar izateak zergadunagan edo persona profesionalakan sortu leiken ziurbakotasunak ez dau egonezin hori azaltzen, diputadu jauna, zuk esan dozun moduan. Egonezin horren oinarria, ostera, akatsez jositako sistema bat abiarazotean dago. Izan be, akats gehienak aurreikusitako egin ahal ziran eta erraz konpondu ahal ziran, eta, jakina, zu eta zure Saila ez bazin arinegi joan, beste eragile batzuk entzun bazenduz eta parte hartu balebe; izan be, aplikazioa alde aurretik probatu ahal izango eben eta horren araberako ekarpenak egin ahal izango ebezan, sistema hobetu ahal izateko.

Eta tresna horren eta sistemaren diseinuan ez da kontuan hartu oposizio taldeen ekarpenik, hori argi baino argiago dago; eta argi dago tresna horregaz lan egin behar daben personen parte-hartzerik be ez dana egon, nahi-ta atzo esan zenduen eurekatz egon gura dozuela; izan be, hori lehiaketagaz eta guztion parte-hartzeagaz hobetzen da. Itxi eizazue esaten, baina lehenago hartu bazenduz kontuan, kaos honen zati handi bat saihestu ahal izango genduan.

Errentaren kanpaina hau, Iruarrizaga jauna, kaos bat izaten ari da, akatsez beteta dago, bai ala bai sartu gura izan dozulako, eta horren ondorioz, okerra etorri da. Eta egonezin horri erantzunez, lehenengo eta bat garrantzia kendu gura izan zeuntsan, eta atzo prentsaurrekoan parkamena eskatu zenduan arren, barrero be hutsegiteen garrantzia eta leba txikiagotu egin zenduan, eta barrero adierazo zenduan, ba, akatsak puntualak dirala eta ez dirala larriak.

Eta astakerien zerrenda luzea da, eta gutunagaz hasten da. Hildakoei aitorpenak bialdu jakez, aitorpenak bialtzen ari jakez aurkeztu beharrik ez daukien personei, adinbakoei, barbarako, eta euren tutoreei aitorpen horreek aurkezteak ekarri leikezan ondorioen barri emon barik. Bialdu diran gutun batzuetan kopuru izugarri handiak ordaindu behar dabezala zehazten da, eta horrek persona batzuei akatsen bat dagoala pentsaurazoko deutse, baina beste batzuei albisteak nerbio-krisia ekarri leikioe, gertatu dan moduan, eta, zorionez, batzuk hurren dagoan aholkularitzara joango dira arineketan. Eta hori gure lurraldeko adin nagusiakaz gertatzen ari da. Beste kasu batzuetan, ordaindu egin behar dozula baino ez da agertzen, ez dinotsue zenbat, eta jasoten dozunean eta, entzun dozuna entzunda, ez dakizu orrialdean sartzen ez dalako dan, edo Ogasunak borondatea eskatzen deusulako eta horregaz nahikoa izango dan.

Horreek eta beste askok agirian itxi dabe akats larriak dagozana, baina baita Sailaren kudeaketa hobetu leitekela be. Begira, gutuna irakurrita, eta hondino inongo izapiderik hasi barik, batzuk Foru Ogasunean geunkan konfiantza maila jaitsi da, eta, beraz, zergadun bakotzak bere ezagutza fiskala neurtuko dau eta ebatziko dau aholkularitza batera joan eta 50 eta 90 euro artean ordaindu, aitorpena erraza izan ezkerro, edo 300 eta 500 euro artean ordaindu, gatxa bada. Ebatziko dau, abenturazalea bada, jarraibideak internet bidez jarraituko dauzan, eta, kasu horretan, espero daigun aitorpena erraza izatea, espero daigun etxe bat erosi edo saldu ez izana, espero daigun Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEE) ez egotea, espero daigun Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) kobretan ez egotea, edo beste gorabeheraren baten ez egotea. Benetan, lasai hartu zeinke. Eta espero dot ordurako zergadunak zeozelan Foru Ogasunean konfiantza berreskuratu izana, ez dalako kalkulu bakar be egongo, ez horren inguruko datuen taularik be.

Berba hori darabilgula, profesionalek ez ezik, zergadunek be ikusi gura dabez kalkuluak eta magnitudeak. Bai, ondo dago Ogasunak kalkuluak egin deiguzala, baina zelan egiten dauzan jakin gura dogu. Eta, halanda be, ezin badozu, ez kezkatu; izan be, deiaren komodina daukagu, oso baliagarria dana euren burua gaitasunez ikusten ez dabenentzat edo prozesua jarraitzeko beharrezkoak diran tresna teknikoak ez daukiezanentzat, dala ordenagailu bategaz, dala telefono bategaz, dala interneterako sarbiderik ez daukielako. Eta badirudi ez dozuzala irakurri Arartekoak emondako gomendioak, herritarren arreta indartu beharri buruzkoak, personek administrazio publikoakazko hartu-emonetan daukiezan eskubideetan kalterik ez eragiteko. Eta, larriena zera da: horreen barri izan ezkerro be, beharbada ez jatzuzala ardura. Izan be, Etxanobe andreari entzun ondoren be, emoten dau ez deusazula jaramon handirik egiten erakundearen sailari.

Begira, personok Ogasunagaz hartu-emonetan jarteko ebatzia hartzen dogun unea helduta, ikusten dogu arreta ez dala diputaduak berak berbatu ebanaren antzekorik be ez. Eta ez, Iruarrizaga jauna, herritarrak ez dagoz pozik. Zergadunak eta aholkularitzak, hondino be, kexau egiten dira ez jakelako telefonorik hartzen ari. Horren aurrean, atzo bertan esan zenduan: “163.000 dei artatu dira, 12.700 dei egunean”, eta horren aurretik adierazo zenduan batez beste 6 minutuko iraupena eukiela deiak. Dagozan zailtasunak ikusita, ez jat errazoi positiborik bururatzen deien batez besteko iraupena 6 minutukoa dala esateko. Zer pentsau geinke 6 minututan erantzun edo konpondu leitekela, egozan akatsakaitik? Esaiguzu, esaterako, zenbat dei jasoten dozuezan egunean, ez zenbat artatzen dozuezan, eta esaiguzu zenbat ari diran galtzen. Datu horreek egoeraren ikuspegi argiagoa emongo deuskue. Telefono

bidezko arretako langileak indartuko zenduzan, baina bildur naz ez ete dan nahikoa, esan deusudan moduan, erantzuten ez jaken deien kopurua ikusita.

Zergadunak aurrez aurreko hitzordurik ez dabelako lortzen kexetan dira, ezta hitzordu hori erregututa be. Horrelan eskatu ezker, zergadunek aurrez aurreko arreta jasoteko konpromisoa hartu zenduan. Atzo aurrez aurre 63 persona artatu dozuezala esan zenduan. Aurretiazko hitzordua behin eta barriro, hiru aldiz, esaten dabenean emoten dala, errepetidu zenduen. Antza, zergadunek behin eta barriro eskatu behar dabe, Iruarizaga jauna, Foru Aldundiari erregutu egiten behar deusie aurrez aurre artatuak izateko. Hori al da kanal anitzeko arreta? Zenbat aitorpen aurkeztu dira aholkularitzen bitartez, zergadunek Foru Ogasunean erantzunik ez dabelako aurkitu?

Begira, batez beste, 167.000 aitorpen aurreko urteetan; 167.000 aitorpen aurrez aurreko arretagaz, bai banketxen bitartez, 120.000 inguru, bai Foru Ogasunaren bitartez, 47.000. Aurten, 63 daroaguz. Herritar guztiak digitalizau dira, antza. Nire ustez, zergadunek men egin dagiela behar izate horrek eta nahita aurrez aurreko arretarik ez izateak, beharbada ez daukien dirua aholkularitzan gastuarazotera bultzatzen dabez herritarrak. Hondino be berbea emoten jarraitzen dozu gura dauenak aurrez aurreko arreta jasoko dauela, behin eta barriro eskatu behar barik? Zenbat persona gehiago dagoz Ogasunean aurrez aurreko arreta emon ahal izateko, 2020ko urtarrilean esan zenduan moduan?

Eta itxi eidazu esaten, baina sumautako akatsetan bat etorri geintekizan arren, horreetako batzuk konpondu egin dira, eta parkamena eskatu arren, hondinokoarren badira Sailak erantzun gura ez dauzan garrantzi handiko gaiak. Jentea ez dago pozik, eta, begira, atzo kexak zenbatzeko gai izan zinan, eta, halanda be, pozik dagozan personen kopuruaz berba egitean asko dirala dinozu. Eta ja 171.676 personak aurkeztu dabela aitorpena esanagaz oinarritzen dozu baieztapen hori, eta horrek esan gura dau Bizkaiko zergadunak erantzule dirala euren zerga-betebeharrakaz, eta ez zuk ezarri dozun arreta-ereduagaz pozik dagozala. Gaur, aukera dozu, benetan, zergadunakaz eta profesionalakaz enpatia eukiteko, eta arreta-eredu barri hori egokitzeko. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo.

De Madariaga andrea, lerro eta erdi eskas ei eukan itaun bategaz nentorren, eta hori da aurkeztu deustazuena, eta nik errenta-kanpaina honen gorabeherei erantzun behar deutset, eta ez naz orain sartuko tribuna honetan errenta-kanpainari buruz bota dozuzan adjektiboen gaian. Zure itaunari erantzutera mugatuko naz; izan be, Amaya Fernández andreak be diputadu jauna Arabako ahaldun nagusiaren itxura eukala esan dauen moduan, eta gaur San Prudentzio dan ezker, ba horren haritik jarraituko dogu.

Esan dozun moduan, eredu barri bat jarten ari gara martxan, Batzar Nagusi honeek onartutako PFEZren arau baten oinarrituta. Arau horrek orain arte geunkan eredu aldatu egiten dau, eta persona guztiei ahalik eta asistentzia-mailarik handiena eskaintzen deutse, eta hori zergadunen ehuneko ehunari aitorpen-zirriborro bat eskainiz egin dogu.

Nire ustez, PFEZ, kudeaketa egiterakoan, sano zerga konplejua da, gure sistemako konplejuena, eta ia milioi bat personari (996.000 persona, buruz nabil) aitorpen bat

egiteko proposamena mahai gainean jarreak, ba, kontsultau, aldatu eta aurkeztu ahal izan dagien, garapen informatiko konplejua eskatzen dau. Atzo zergadunei jakinarazo geuntsen moduan, hatan be, kasu oso zehatz batzuetan aitorpen-proposamenak sortzerakoan eragina izan daben akatsak sumau doguz, eta horreek igarri ondoren, al bait arinen konpondu dira. Nik hemen parkamena eskatzen dot barriro. Badirudi horrek ez deutsula ezertarako balio, De Madariaga andrea, baina, tira. Eta parkamena nire izenean eskatzen dot eta lanean ari diran Bizkaiko Foru Ogasuneko eta Lantik erakundeko persona guztien izenean, proiektu garrantzitsu honetan lanean ari diralako, eta ofizioz jardungo dogu akats horreek kaltetu dabezan personak ordetzeko.

Eta gorabeherei jagokenez, barriro be bi kategoriatan laburbildu gurako neukez. Alde batetik, gutunak sortzean izan diran gorabeherak dagoz, etxebizitzetara bialdu diranak. Kasu honetan, 4 gorabehera topau eta zuzendu dira errenta-gutunak sortzeko prozesuan.

Horreetako bat da Foru Ogasun honi jakinarazo jakola 162 gutun bialdu dirala hildakoen izenean. Persona horreen guztien kasu horreek aztertu ondoren, datu ekonomikoak daukiez, hau da, Ogasunak hainbat eragilegandik (finantza-erakundeak, GKEak, fundazioak izan leitekez) lortzen dauen informazioan, persona horreek datu ekonomikoak daukiez, eta, kasuren baten, Ogasuneko zuzendariak atzo adierazo eban moduan, 30.000 eta 20.000 euro arteko mobimentuak egon dira kontu horreetan. Halanda ze, horregaitik sortu doguz gutun horreek, horixe da errazoa. Gutun bat bialduko deutsegu parkamena eskatzeko.

Horrez gain, 805 gutun bialdu deutseguz bizkaitarrak ez diran zergadunei, euren garaian halan izan ziralako, lurraldetik kanpo joan ziran arren biziten. Eta gero, akats informatiko baten ondorioz sartu ziran beste 27.000 gutunetan bigarren abizenik ez daukien personei bigarren abizena jarri jaken. Abizen bakarra daukien persona asko dagoz, esan neban, europarrak diralako edo, berbarako, herrialde islamiar edo afrikarretakoak, eta makinak bigarren abizen bat jarri deutse, hori da akatsa. Hara, ulertuko dozuen moduan, akats horrek ez dauka arazorik aplikazinoa edo bialdutako errentaren zenbatekoa kalkuletako.

Garrantzi handieneko akatsa zergadunari errenta autortzeko betebeherra ezarten deusnan arauan egindako akats informatiko batek eragin dau. Kasu horretan, 29.000 persona baino gehitxoago egon dira. Persona horreei gutunak bialdu jakez, eta aitorpena aurkeztera behartuta egon arren, ez dagozala behartuta jakinarazo jake. Kalkulua zuzena da, baina aitorpena egitera ez dagozala behartuta esaten jakon, eta behartuta egon behar zan. Eta beste 19.000 personari ez jake esan behartuta ez dagozala, kalkuluak bialdu jakez, beste barik. Ogasunaren izenean, gutun barri bat bialduko jake persona horreei parkamena eskatzeko eta benetako egoeraren barri emoteko.

Bigarrenik, gorabehera edo kasualidade batzuk gertatu dira web-aplikazinoan. Dakizuen moduan, aplikazinoak aukera emoten deutse milioi bat persona ingururi errenta-aitorpenak kontsultetako, aldatzeko, osotzeko eta aurkezteko. Horretarako, eta egoera testuinguruan jartearren, 8.975 kalkulu-arau ezarri dira, eta 709 milioi datu baino gehiagoren gainean jarduten dogu. Aplikazino hori abiarazo danean 8.975 arau horreetako hamabitzen akatsak agertu dira; 12 kalkulu-arautan akatsak, eta horreek aitorpen-proposamenen %3ri eragiten deutsee.

Eta datuak bistaratzean be 43 gorabehera igarri doguz, bistaratzean baino ez. Azken horreetatik hasita, gertatzen ari zana da aitorpenen pantailetako banakaren baten ez ziralako agertzen aitorpena kalkuletako kontuan hartzen ziran datu guztiak, edo identifikazino desegokiagaz agertzen ziralako. Daborduko zuzenduta dagozan gorabehera horreek ez eben ezelan be esan gura zergaren kalkulua behar ez zan moduan egiten ari zanik. Kalkulu-gorabeherei jagokenez, zergadun kopuru handienari eragiten eutsienak konpondu dira lehenetsun handienagaz. Esaterako, kenkari personalei edo familia-kenkarietara buruz ari gara,

edo familia-unidadearen banakako adierazpenetan agertzen ziran eta baterako aitortpena eroaten ez ziran murrizketa batzuei buruz. Aitortpenean agertzen ziran ondasun-erkidegoen kapital-etekinez ari gara, baina kalkuluak ez ziran zenbatzen akats informatiko baten ondorioz. Berbarako, BGAEek ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde egiten dabean ekarpenak ez mugatzea, etxebizitza etxebizitza-kontu bategaz zein maileguagaz finantzatzen zan kasuetan mailegu kengarrien ehunekoaren kalkulu okerra, muga apliketan ez zan ekintzailletza sustatzeko kenkariak, eta kasu batzuetan ondorengoakaitik kenkaria gehitu da, nahi-ta LGS baino gehiago kobrau (Lanbide arteko Gitxieneko Soldata), ordaintzaile batzuk eukiezanean eta ez ebenean ezelan be gainditzen, eta kasu jakin batzuetan ez zan onartzen ondorengoakaitiko kenkaria apliketea tutoretzapeko personen kasuan.

Kasu horreei nortasuna egiaztetako sisteman gertatutako akatsak gehitu behar jakez. Akats horreek 8 orduz gertatu ziran apirilaren 6an, eta 3 ordu eta erdiz apirilaren 7an, kanpainaren lehenengo egunetan. Beste urte batzuetan kanpaina maiatzaren lehen egun baliodunean hasten zan, ez apirilean.

Era berean, adierazo gura dot, kalkulu-arauetan eta datuak bistaratzean aurkitutako akatsak zuzendu ondoren, Foru Ogasunean Errentaren aplikazinoa eguneratzen jarraitzen dogula zergadun guztien erabilera erraztuko daben hobekuntza barriak sartzeko, eta horreetako bat ja eskuragarri dagoala. Kontzeptu desbardinaren zerga-magnitudeak jasoten dauzan likidazinoaren simulazinoa da, eta kalkuluak zelan apliketan dan, orain dala 10 egun baino gehiagotik hona ikusgai dagoala uste dot.

Eta hobekuntza horreen artean, aholkulari fiskalen lana erraztuko daben tresna batzuk be izapidetzen ari gara, adibidez, datu fiskalak aurreko eredu formatu berean eskuragarri jarrea, eta webgunearen erabilera hobetuko daben beste aldaketa-iradokizun batzuk be. Datu fiskalak ikusi leikiez, baina banan-banan sartu behar dira. Horrelan, behin bakarrik sartuta zergadun baten datu fiskal guztiak lortuko dabez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Y en el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Uste dot, Iruarrizaga jauna, nire gaurko galderak ez dirala izango zure gustukoak, baina nik be ez neban espero atzo zure prentsaurrekoa, eta egokitu beharra daukat. Hori politika da, saiatu zaitetz zeu be egoerara egokitzen.

Atzo prentsaurrekoan esandako gauza bera kontau deuskuzu barrero, eta gai batzuk argiak dira, eta zuk ez deutsezu erantzun gura. Errenta-kanpaina penagarria izaten ari da, ez bakarrik web-aplikazioak akatsak euki dauzalako, eta, hain zuzen be, denpora guztian horri gura deusazu arreta ipini eta sistemaren konplejutasunaz berba egin gura dozu. Zati hori nire egiten dot; izan be, horretan ez dot ezelako zalantzarik ipinten. Era berean, egia da horreetako asko saihestu egin ahal zirana zuk izan ez dozuzan eragileen parte-hartzea euki bazendu, baina web-tresna hobetzeaz gain, nire ustez, zeozelan herritarrei emoten jaken arreta hobetzea azaldu behar da, eta zuk ez dozu horretaz berba egin gura.

Horri ez deusazu erantzuten. Guk aurrez aurreko arretarako proposamen zehatzak jarri geuntsuzan mahai gainean 2020ko zezeilean, kanpaina hau hasi baino urtebete lehenago, eta zuek guztiari ezetz esan zeuntsien, dana kontrolpean ei egoalako, dana kontrolpean. Telefono bidezko arretarako behargin gehiago ipiniko ei zenduezan, eta aurrez

aurreko arretarako behargin gehiago ipiniko ei zenduezan. Beharrezko ziran baliabide guztiak jarriko zenduezan. Tira, ba, ikusten ari gara ez dirala nahikoa izaten ari.

Arartekoak gomendioen txostena argitaratu baino 9 hilabete lehenago proponidu geuntsuen, eta, bide batez dinot, txosten hori gure proposamenak defendiduteko erabili genduzan argudio guzti-guztien oinarri dala. Arartekoaren gomendioak, jauna; nire lehen agerraldian esan deusut interesgarria izango zala txosten hori irakurtea. Gainera, gaur egun Covid dalakoaren ondorioz bizi dogun krisi ekonomikoak eragindako arrakala digitalak gora egin dauen ezker, txosten horrek hainbat gomendio ezarten ebazan esperientziaren bidetik, Administrazioaren eta herritarren arteko hartu-emona eta komunikazioa hobetzeko. Eta, gainera, gogorarazo gura deusudaz funtsezkoak diran 4 gai, begira, personak ez dagozalako behartuta administrazio publikoakaz modu elektronikoan hartu-emonetan jartera.

Nik, benetan, digitalizazioa, bai. Jakina baietz, bai, ados gagoz, baina ez danerako ezta persona guztientzat be.

Nire ustez, proponiduten dozun eredu sano ondo oinarritzen da paperean eta teorian, eta zergadun guztiak digitalizazioari men egin behar deusiela sartu jatzu buruan. Eta ulertzen dot, ulertzen dot zure ahalegina, sano apustu garrantzitsua egin dozulako, zuk eta zure sailak, baina ezin da izan digitalizatea, herritarrek gura zein ez gura, nahi-ta aurrez aurreko arreta-eredu bat behar eta eskatzen daben, eta hori da errespetetan ez dozuna. Arabere gehiago, herritarrek aurrez aurre artatuak izateko eskubidea daukie, zuzenean eta aurrez aurre, eta Foru Ogasunak eskubide hori bermatu behar dau. Herritar guztiek administrazio publikoagaz hartu-emonetan jarteko erabili gura daben bidea aukeratzeko daukien eskubide hori bermatu behar dozu.

Eta horretarako langile gehiago behar badira, aldi baterako sartu zeinkez langileak zure plantillan, eta, bide batez, enpleoaren kalidadea be zaindu egingo dozu, eta hori ez da Infojobsen orrialde horretan bere garaian egin gura zana.

Osasun-egoeraren ondorioz, hatan be, aurretiko hitzordua ezarri behar dala ulertu geinke, baina ez ahaztu egoeraren arabera dala, eta herritar lez eskubidea daukagula fisikoki aurkezteko eta administrazio publikoen aldetik aurrez aurre artatuak izateko.

Iruarrizaga jauna, herritarren eskubideak bermatzeko eta Ogasun Sailak eskubide horreek bermatzeko daukazan betebeharrak beteteko ordua da, eta, benetan, sano gatxa da zure itxitasuna ulertzea, legea eskuetan dozula, eta eukiten ari zaran esperientziagaz nahikoa izan beharko leuke gai hori birplanteetako, eta espero dot hurrengo agerraldian horren inguruko aldaketa bat entzutea. Administrazio Publikoak emoten dauen zerbitzua Bizkaiko herritarren preminen eta eskaeren errealidadeagaz bat etorri daiten konpromisoa hartu daizula eskatzen deusut.

Nire ustez, talde honek ez ezik, gehienbat herritarrek eurek egiten daben eskakizuna eta eskaera da hori, eta zuk erantzun egin behar deusazu. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Eskerrik asko, De Madariaga andrea, agerraldian erabili dozuzan berbakaitik eta, batez be, tonuagaitik. Penagarria dala, horretan ez nator bat, baina, tira, bakotxak berba egiteko moduan darabilguzan kalifikatzaileak dira.

Bai, atzo be aitatu genduan. Hiru aste daroaguz errenta-kanpainan; errenta guztiz barria da, eta, jakina, Ogasunak egin behar dauena da kanpaina amaitzen danean jesarri eta errenta-kanpainaren alderdi osoan gertatzen ari diran egoerak aztertu.

Beti be itaunean aitutzen ziran akatsak doguz berbabide, baina iruditzen jat, gertatzen ari danari buruzko ikuspegi orokorragoa izateko, uste dot horren 360º-ko ikuspegi hori eukitea be ondo egongo litzatekela, eta gero bakotxak ulertzen dauen moduan kalifikau daizala akats horreek, eta uste dot gertatzen ari danari buruzko datu batzuk emotea be ondo egongo litzatekela.

Orain arte, gaur goizean begiratu dot, eta 186.000 aitorten aurkeztu dira, horreetatik % 12 inguru, hau da, 20.000 aitorten baino gehiago telefonoz aurkeztu dira, telefonoz.

Eta niri gustauko litxakit hori esatea; izan be, beharbada txarto komunikau dogula adierazoten ari gara, hau da, Errentaren kasuan egin leitekezan aitorten guztiak eta prozesu guztiak telefonoz egin leitekezala. Bardin egin leiteke telefonoz, edo bulego batera joanda, edo webgunearen bidez, edo app-aren bidez.

Eta telefonoetan dagozan personek be esaten deuskue, batez be edadeko jenteak, hitzorduak daukiezala esaten jakenean, eta esaten jakenean “baina, zertarako gura dozu hitzordua?”, “ez, ba hau egiteko gura dot”, “tira, esaidazu zein dan, halakoa”, eta gauzak egiten jakozanean, sano pozik amaitzen dabela, etxetik urten barik egin jakelako errenta. Eta badira 60 urte inguruko personak eta, zerbitzu hori eskaini arren, ezetz erantzun dabenak. Ezetz esan dabe. Orduan, aurrez aurreko hitzordua emongo jake. Hori da egoera, ez da ezer buruan sartu jatanik.

Tira, ba daborduko 186.000 errenta-aitorten aurkeztu dira, eta %88k webgunearen bidez egin dabe, eta %12k telefonoz, %70 itzultzekoak dira, eta %30, barriz, ordaintzekoak. Hori ez zan beste urte batzuetan gertatzen; izan be, dirua itzuli behar eban jenteak errentaren aitortenaren ia azkenetan aurkezten ebalako. 97.000 zergaduni 101 milioi euro baino gehiago itzuli jakez, eta, batez beste, 13.000 telefono-dei artatzen ari gara.

Uste dot agerraldietan 10.000 dei artatzeko diseinatu genduala esaten genduala, eta izaten ari gara, egia da. Lehenengo honetan milioi bat gutun bialdu doguz, telefonoaren lehen bolada honetan gehiago artatzen ari gara, ez daukadaz zifrak, baina erantzun geinkezanak baino dei gehiago dagoz. Halanda ze, itxaron-uneak dagoz, eta uste dot hori be atzo esan nebala.

Eta persona batzuek eskertu egin deuskue aldaketa; izan be, eskertzen dabe. “Ez, zuk ez dozu kuantifiketan”. Hara, ba, baten batek esan ahal dauen moduan “persona batek esan deust hau txarto dagoala”, ba ezin hobeto. Eta beste batzuek ez dagoz ados eta ez dira aurkeztu. Uste dot 550-560 kexa inguru dagozala. Unada honetan horixe da daukaguna errenta-kanpainan.

Zer jazo da? Ba, une honetan, kanpaina honek eredu barri bat ekarri deuskula eta eredu barri horren arrakastak eta akatsak agirian itxi deuskuzala, bai eta haren bertuteak eta gabeziak be; eta kanpaina barri horrek egunez egun hobetzen jarraitzeko eragiten deuskuzan ezagutza horreek guztiak erabiliko doguz.

Nire eretxian, uste dot sistema on bat ezarrita dagoala Bizkaiko persona

guztiek errenta errazago egin ahal izan dagien. Sistema barria da, sano barria. Sistema erabiltera ohituta egoanari sistema zaharrak distortsino handia sortzen deuto, aholkulariei, esaterako, eta danok egokigu behar gara, eta jarraitu egingo dogu, eta hobetzen jarraituko dogu. Izan be, akats horreekaz be egin dogu, beste eskaera batzukaz egin dogu. Atzo adibide bat ipini neban, esaterako, zelan bildu ginan arazoak daukiezan personakaz..., gorrakaz, beste zergadunek daukien tratu bera euki dagien. Hara, nik esango neuskizu itzalak baino askoz be argi gehiago daukazan eredu baten aurrean gagozala.

Hobetu egin behar dogula? Jakina, dana hobetu leiteke. Nire ustez, horretan ez deuto inork ezer esan behar, eta, batez be, hori behin igaroten danean eta errenta-kanpaina amaitzen danean azterketa zabalagoa egin beharko dogu, uste dot bagilaren amaieran bukatuko dala. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Iruarrizaga Artaraz. Y pasando a las preguntas, el séptimo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0000954](#))

Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Asunto: Volumen de vertidos en Zaldibar.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0000954](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (59A)

Expediente: ([11/B/25/0002077](#))

7.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0000954SE](#))

Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Gaia: Zaldibarko isurketen bolumena

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0000954SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (59A)

Espedientea: ([11/B/25/0002077](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, y buenos días a todos y a todas. Un año después del crimen medioambiental de Zaldibar en el que murieron dos trabajadores, Joakin y Alberto, sigue publicándose información relevante a cuentagotas.

Berria egunkariak Zaldibarko zabortegira hondakin gehien eroan dabezan Euskadiko enpresen inguruko erreportajea argitaratu barri dau. Ohiko enpresen artean Bizkaiko Zabor Berzikletgia (BZB) dago. Garbiker foru soziedadea bertako bazkide da, Trienekens empresa alemaniarraz batera. “Bizkaian sortutako ontziak eta ontzien hondakinak bereiztea eta sailkatzea” da enpresa horren helburua, BZBrena, hau da, edukiontzi horia dana.

Para BZB se registraron un total de 967 entradas, con el código LER Plásticos y caucho entre los años 2018 y 2019. Por ello, el grupo juntero Elkarrekin Bizkaia formula la siguiente pregunta: zelan izan leiteke etxeko hondakinen ontziak bereiztu eta sailkatzeko instalazino batek isurketa-bolumen hori erregistrau izana Zaldibarren? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Antxustegi Ziarda, tiene usted la palabra.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Es cierto que la empresa BZB ha utilizado el vertedero de Zaldibar, es decir, el vertedero de residuos no peligrosos. Es cierto, asimismo, que esa empresa disponía de todas las autorizaciones emitidas por las autoridades competentes, hasta el suceso lamentable ocurrido el 6 de febrero de 2020.

Ha utilizado el vertedero de Zaldibar para depositar el rechazo de sus residuos. Permítanme que les explique. Todos los años llegan a BZB más de 20.000 toneladas de residuos de esos contenedores que están dispersos en nuestro territorio, es decir, de los contenedores de recogida selectiva de envases ligeros.

Un porcentaje de esa cantidad son materiales impropios o no deseados. A eso le llamamos rechazo. No se trata de material reciclable. El rechazo se compone de tierra, arena, cauchos y gomas, cables, ropa vieja y rota, plásticos inclasificables, calzado viejo u otros elementos localizables en una casa o en un comercio.

Esta distribución de materiales aptos o no para reciclar es obligatoria cuando se tratan residuos en todas las recogidas selectivas. Sin embargo, gracias a las campañas de sensibilización de todos los agentes que trabajan en el sector y al esfuerzo ciudadano, los porcentajes de materias impropias son cada vez más bajos.

En todo caso, me gustaría mencionar que en Bizkaia hay una planta de clasificación con uno de los rechazos menores de todo el estado. Concretamente, y teniendo en cuenta las cifras de 2019, el dato de Bizkaia se sitúa por encima del 18%, y el de Euskadi es de 19,70%, mientras que la media estatal es de 27,70%.

Durante los años que se mencionan en la consulta realizada por el grupo Elkarrekin Bizkaia, las cantidades de estos materiales impropios, es decir, de los rechazos que BZB depositó en Zaldibar fueron las siguientes:

2.701 toneladas en 2018, y 4.218 toneladas en 2019.

La gran diferencia entre estas cifras se debe a que en 2018 se emplearon algo más de 1.200 toneladas de esta fracción de rechazo para realizar pruebas de adquisición de biocarburante. En la actualidad, aunque con una intensidad más baja, se siguen realizando este tipo de pruebas para buscar formas de valorizar estos rechazos que se detectan en la planta de clasificación. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. En el turno de réplicas, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Bai, eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Tira, lehenengo eta behin zera esan behar da: zoritxarrez, Zaldibar

hondakin bihurtutako lehengaiak sortzeko eta tratetako eredu jasanezinaren estalkia zala, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat be halan izan dala, eta kasu honetan ez zan edozein erabiltzaile, ezpada hondakin gehien isuri ebazan hamargarren enpresa. Hain zuzen be, Zaldibarko sarreren zerrendetan argitaratutako informazioaren arabera, BZBri 4.700 tona hondakin egokozan 2 urtean. Jakina, gero BZBren urteeren zifrak ikusten badoguz, zifra askoz be handiagoa da.

Gerotxoago sartuko naz gai horretan, une honetan daukaguzan zalantzak ugariak diralako, jakina. Hori instalazinoko errefusak dirala argitu deuskuzu, ondo dago. Baina errefusa horreek, zein kontabilidatetan sartzen dira? Garbikerren datuen arabera, 2018tik 2019ra bitartean 37.500 tona bildu ziran edukiontzi horitik; beraz, 4.700 tonako kopuru horretan oinarritzen bagara, jasotakoaren %13 Zaldibarkoa izan zan. BZBren txostenetan ikusi leiteken moduan, bildutako tonen %78 inguru birziklau eta %22 erraustu egiten dira. Jakina, Zaldibarko isurketen arrastorik be ez dago ehuneko horreetan. Non sartzen dira, erraustutakoagaitik Zabalgabiri errausteagaitik ordaintzen jakon horretan, edo birziklautakoan?

Tira, uste dot danok genkian sekretu bat egiesten dala, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian birziklatzeari buruz emoten dauzan zifrak faltsuak dirala. Zergaitik diran faltsuak? Birziklau moduan zenbatzen diralako tratamentu-instalazinoetako sarrera guztiak, gero zenbat errefus dagoan eta non amaitzen dan kontuan hartu barik. Zer esan gura dau horrek? Bizkaiko Foru Aldundiak emoten dauzan birziklatze kopuruetan Zabalgabiri errausten zana eta Zaldibarren ezkutetan zana zenbatzen ari dirala.

Jakina, azkenean zifretan be aldea dago Verter Recycling-ek zerrendatzen dauenaren eta BZBk Zaldibarrera bialtzen ebala dinoanaren artean. Tira, zenbakien magia handia dago hondakinen kudeaketaren kontu osoan. Ingurumen-kontuetako zifraz tranpak egitea bakar-jokoan trikimailuetan aritzea lez da, horretan uste dot nigaz bat etorriko zarala. Eta BUHKPI (Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala) barritzeagaz batera hondakinak kudeatzeko eredu baten alde lan egingo dogulakoan nago, gitxienez zifra garden eta egiazkoetan oinarrituta, eta egiazko informazio horren arabera hondakinak kudeatzeko politika behar dan moduan planifikau ahal izango dogulakoan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Antxustegi Ziarda, tiene usted la palabra.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias.

Barrero dinot gaikako bilketatik datozen hondakinak sailkatzeko prozesu guztietan errefusa edo material desegokien ehuneko bat sortzen dala. BZBren kasuan, ehuneko hori txikiagoa da gure ingurune hurbilenean Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen dana baino, eta bai Estaduko batez bestekoa baino be.

Errefusa ez da birziklatze-katean sartzen eta, beraz, beste urtenbide bat emon behar jako. Kasu horretan, Zaldibarko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian itxi zan, eta gogorarazo behar dot agintaritza eskudunak bere jarduera garatzeko emondako baimen guztiak eukazala, zoritxarreko erorketa gertatu zan arte.

Gaur egun zabortegian biltegitratzea da hondakin desegokien ohiko urtenbidea, errefusarena. Baina alternatiba bila gabilz, aurreko agerraldiaren amaieran esan dodan moduan. Errefusa horreek balorizetako probak egiten ari gara. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Antxustegi Ziarda. Y el punto octavo del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001508](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: La Eurocopa.

Documento

([R.E.11/E/2021/0001508](#))

Expediente: ([11/B/25/0002291](#))

Principal:

8.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001508SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Eurokopa

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001508SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0002291](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Dakizuenez, Bilbo UEFAk Eurokopa ospatzeko aukeratutako egoitzetako bat zan, eta San Mames, 53 urte geroago, Espainiako selekzinoaren partidak hartuko ebazan estadioa. Galdera hau aurkeztu zanetik gaur arte gertaera asko jazo dira, eta horregaitik galdetzen deusat ahaldun nagusi jaunari zer erabaki hartu dauzan Eurokopa Bilbon egin ahal izan daiten saiatzeko, horrek Bizkaiko sektore ekonomikoentzat ekarriko leukena kontuan hartuta, eta arabere gehiago jasaten ari diran une gatx honetan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, Maite. Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Fernández andrea, galderan bertan darabilzun kontzeptu batez erantzungo dodala esan dot, hau da, erakunde honek, ahaldun nagusi honek Bizkaiaagaz daukan konpromisoagaz, beti be barriro esango dodan esakunea buruan dodala, Bizkaia hobea ixtea hurrengo belaunaldientzat, hatan be.

Eta konpromiso horregaz leiala nazan ezkerro, gaur egun gure eta nire lehenengo erantzukizuna lurraldeko emakumeen eta gizonen osasuna da, hori da lehenengo gauza. Lehenengo eta behin, personen osasuna zaindu eta babestu behar da, beste ezeren gaintik. Jasaten ari garan osasun-krisia askotan izan dozu berbabide, eta, izan be, une honetan datuek oso fase zorrotzean gagozala erakusten dabe, sano fase txarrean. Txarto jarraitzen

dogu, baina horrek izan behar dau lehentasuna, zalantza barik. Euskal erakunde guztiok hartu doguzan neurriak hartuz, mota guztietako esparruetan. Zertarako? Pandemia kontrolau eta gitxitzeko asmoz, ez kontrakorako, ez deskontrolatuko, ez larriagotzeko. Hori da konpromisoa, hori da euskal erakundeon konpromisoa.

Eurokopa ez ospatzeak kezkatzen al nau? Lurraldearen nazinoarteko posizionamentuak kezkatzen al nau? Ekitaldiek kezkatzen al nabe? Bai, jakina. Kezkatzen gaitue, jakina. Azken unera arte kezkatzen nabe. Bilboko hautagaitza babestu dogu, Udalagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz batera. Baina hori guztia baino lehen, gure herritarren osasunak kezkatzen gaitu eta kezkatzen nau, lurraldeko jentearen osasunak. Lehenengo osasuna da, eta gero etorriko da gainerakoa. Gero dator gainerakoa.

Hori bateragarria al da, gauza bat besteagaz? Hara, euskal erakundeok horrelan zala uste genduan, guztiz bateragarria zala. Dana dala, UEFAk, alde bakarretik, barrero esango dot, alde bakarretik, ezetz eretxi deutso. Baina konpromisoagaz jarraitzen dot, Ahaldun Nagusi honek be konpromiso bat bete behar dau, berbea, emondako berbea bete behar dau. Eta Eurokopagaz guk sinatutakoa bete dogula esan deikezut. Gure berbea bete dogu, azken unera arte beharren jarraitzen genduan lehiaketa hartzeko, pandemiak berak ahalbidetzen euskuzan aukeren barruan. Eta, hoba ez, adituek helduarazoten euskuezan osasun-erispideakaz jarraitzen genduan beti. Halanda ze, gogorarazo gura deusut UEFA izan dala berbea bete ez dauena, sinatutakoa bete ez dauena. Beraz, konpromisoa bai, erabatekoa, lehenengo eta behin personen osasunagaz; bigarrenik, berbea betetea, kontratuak betetea, emondako berbea betetea; eta hirugarrenik, jakina, hasieran esan dodan moduan, Bizkaia hobeago bategaz konprometiduta, Bizkaia hobeia ixteagaz beti.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Diputado General. En el turno de réplicas, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Tira, daborduko esan dozu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoa izan dala beti, eta bai zeurea be, Ahaldun Nagusi lez. Zurea danik, hondinokoarren, ez dot zalantzan ipiniko, baina Bizkaiko Foru Aldundiarena ete dan ez daukat hain argi. Hain zuzen be, 2014an, karguan zure aurretik egon zanak esan eban gustauko jakola Eurokopako partidak San Mamesen jokatu ahal izatea, baina Espainiako selekzioak bisitari moduan jokutzen baeban baino ez. Egia da beste erispide bat izan zana, urte hareetan zure homologoak Bilboko Udalean eukazan bi arimakaitik izango da, baina esan eban zoragarria izango zala San Mamesen, Bilbon, Eurokopa hartzea. Baina, tira, une horretan eta une honetan be, Bizkaia lasai hori existiduten da, errealidadeari lotuagoa, futbol-hitzordu horretaz gozetako irrikan eta irrikaz; eta barriro dinot, ostalariak prestetan eta lanean ari ziran beste behin be erakusteko harenbaten Bizkaia, Bilbo, jateko eta daukagun gastronomiaz gozetako munduko lekurik onena dala.

Baina, zer jazo da denpora horretan? Ba, izan be, Eusko Jaurlaritzak bizkaitarren amets hori zapuztea ebatzi dauela, eta bidesarien gizarte-bonuagaz gertatu zana jazo dala; izan be, pandemia oso ondo etorri da, eskunarru bat lez egokitu da-eta. Osasun arloari lehentasuna emoten deusiezan baldintzak heldu dira, hori ez dago zalantzan. Osasun arloa garrantzitsua da, jakina. Baina lortu ezin diran baldintzak azaldu dira, bete ezin diranak. Aizu, bizkaitarrak izateagaitik edo euskaldunak izateagaitik ez deuskuez baldintza desbardinak jarri. Bardinak dira danontzat. Baldintza horreen artean, barbarako, populazinoaren %60k txertoa jasota euki behar dauela adierazo da. Hori bai Eusko Jaurlaritzaren patxada! Hau da,

